

## Herririk Herri |4|

Urkiolako naturgunearen araudia aldatzea onartu dute Legebiltzarrean

## Ekonomia |10|

Joan zen barikuan Berrizen gertatutako lan-istripua salatzeko mobilizazioak



## Berbaz |9|

“Presoak hurreratzea ez da gure kapritxoa; legeak dioena baino ez da”

# Aholku Batzordeko bost kide kexu dira Plan Nagusiagaz

> Elorrioko Hiri Antolamendurako Planerako dokumentu alternatibo bat egitea eskatu dute

> Niko Moreno alkateak dioenez Aholku Batzordeagaz batzea planteatuko du Udalak

3

## ‘Desira plazer’ euskal literatura erotikoaren antologiaz

**KULTURA** • Josune Muñoz eta Igor Estankonagaz batera gaur iluntzean Durangoko Liburutegira euskal literatura erotikoaren ‘Desira plazer’ antologia aurkeztera datorrela-eta, Edorta Jimenez idazle mundakarragaz berbaz jardun dugu asteen.

13



K.Aginako

## Durangoko udal aurrekontuetarako akordioa lotu dute EAJk eta PSE-EEK

**Durango** • Udalak urte bian aurrekontuak onartu barik izan dituen arren, 2010erako plan ekonomikoa onartzeko bidean dira. Asteon jakin eragin dutenez, EAJk eta PSE-EEK “aurrekontuak aurrera

ateratzea ahalbidetuko duen” akordioa sinatu dute. Inbertsioen atalean, besteak beste, San Fauston zentro zibikoa egiteko milioi bat euroko atala aurreikusi dute EAJren aurrekontu proposamenean

3

### • Izurtza

Hiri Antolamendurako Plana berrikusi gura du Udalak

6

### • Mallabia

Haurreskolako parkea estali eta behargin bat hartzeko asmoa

7

### • Otxandio

Abereendako larrea gertu gura dute Mendikurkurren

2

### • Iurreta

Aurrekontuak onartu dituzte, EAJren eta EBren botoekin

7

**5. AUKERA azoka**  
**5. ASTEBURURAKO PLANA**  
prezio harregarrienak

MARTXOAREN 5, 6 ETA 7AN  
LANDAKO GUNEAN

Barikua: 12:00-14:00/17:00-21:00  
Zapatua: 10:00-14:00/17:00-21:00  
Domeka: 11:00-14:00/17:00-20:00



**DURANGO**

# San Fauston zentro zibikoa egiteko milioi bat euro aurreikusi dituzte

Datozen urte bietarako aurrekontuetan beste hiru milioiko inbertsioa egitea proposatuko dute

**G**obernu Taldeak 2010eko aurrekontu proposamena aurkeztu du. Zenbatekoa 30 milioi euro pasatxokoa da; orain urte bi udalbatzarrak aurrekontuak onartu zituen azkeneko aldian baino ia zazpi milioi euro gutxiagokoa.

“Krisialdi ekonomikoak baldintzatutako” aurrekontu proposamena aurkeztu zuen herenegun Gobernu Taldeak. Diru-sarrerak gutxitu diren arren, “hirugarren lagunen interesak jokoan dauden atalak ez murrizten saiatu gara”, azaldu du Aitziber Irigoras alkateak: “Udaletxetik abiatutako ekimenetan jaitsi ditugu diru-atalak. Elkartekin dauzkagun hitzarmenak edo haiei emandako diru-laguntzak, esaterako, mantentzeko ahalegina egin dugu”. Ondorioz, San Fausto jaia edo Udaletik anto-

**30 milioi euro pasatxoko proposamena da; 2007koa baino 7 milioi gutxiagokoa**



Aitziber Irigoras alkateak eta Mari Jose Balier alkateordeak eman zituzten argibideak.

latutako beste hainbat ekintza orain arte baino “doituagoak” izango dira aurrean. Proposamena, segurutzat, datorren asteko osteguneko udalbatzarrean bozkatuko dutela adierazi dute.

Enplegua sustatzeko helburuz, hartu-emanetan dauden instituzio edo entitate guztiekin lanean segitzeko asmoa dute. Gizarte-laguntzari bideratutako

laguntza, berriz, %50 igoko dute, “baztertuak izateko arriskuan dauden kolektiboak babesteko”.

Inbertsioei dagokionez, hainbat diru-atal Durangoko auzoak hirigintza ikuspegitik hobetzera bideratuko dituzte. Juan Itziar irisgarritasun neurrietara egokitzeko 240.000 euro erabiliko dituzte. San Fauston aurrean hasiko dira zentro zibikoa egiteko lanak; milioi bat euroko atala sortu dute horretarako, eta datozen urte bietan beste 3 milioi euro inbertitu beharko dituzte. Amaitzeko, Aramotzen beste zentro zibiko bat egiteko proiektua erredaktatuko dute aurrean, 30.000 euroz.

**Aurrekontuak “doitu” dituzte eta Udaletik antolatutako ekintzek izango dute murrizketarik handiena**

Horrez gainera, Montorretatik Tabirarainoko bidea egiteko ere milioi bat euro erabiliko dituzte; guztira, 4 milioi euroko kostua izango du proiektuak, eta datozen urte bietako aurrekontuek jasoko

dute falta dena. San Rokeko biribilgune bidegorria eta bestelako egokitze-lanak gauzatzeko milioi bat euroko atala sortu dute.

PSE-EEgaz sinatu duten akordioari buruz alde bien arteko “aldeko borondatea” nabarmendu du Irigoras: “Horrek ez du esan gura beste alderdiei itxita gaudenik; alderantziz, alderdi guztientzako atea zabalik dugu akordioetara heltzeko”. ■ J.D.

**INBERTSIOAK**

- San Fauston zentro zibikoa egiteko: - **1.058.000 euro** (beste hiru milioi euro datozen urte bietan)
- Montorretatik Tabirako lotura gauzatzeko: - **Miloi bat euro** (beste hiru milioi datozen urteetan)
- San Rokerako biribilgune inguruan bidegorria egin eta ingurua atontzeko: - **1.100.000 euro**
- Errugbi zelaiako belarra aldatzeko: - **441.000 euro**
- Juan Itziarren zentro zibikoa eraikitzeko: - **236.300 euro**
- Landako-Francisco Ibarra biribilgunearako: - **250.000 euro**
- Karkabak txukuntzeko: - **219.000 euro**
- Tabiran txin-txaunak ipintzeko: - **140.000 euro**
- Ezkurdin txin-txaunak ipintzeko: - **121.400 euro**
- Postetxea zegoen eraikina botatzeko: - **94.400 euro**
- Aramotzeko zentro zibikoko proiektua egiteko: - **30.000 euro**
- Durango 1936 elkarteak proposatutako eskultura: - **18.000 euro**



## EAJgaz lortutako akordioaren oinarriak azaldu ditu PSE-EEK

PSE-EEK eta EAJk aurrekontuak aurrera ateratzea ahalbidetu duen akordioa sinatu dute; Pilar Rios sozialistak adostasun nagusien azalpena eman du

Hilabete eman dute negoziaketan eta Pilar Rios zinegotzi sozialistak alde bietatik “akordioetara heltzeko borondatea” egon dela azpimarratu du. Akordioak enplegu, etxebizitza eta gizarte-ekintza arloetan lotu dituzte. Udalaren

**Enplegu, etxebizitza eta gizarte-ekintza arloetan eman dira akordio nagusiak**

diru-sarrerak “asko jaitsi” direla gogoratu du, eta horregatik “herri-tarrei zuzenean eragingo dieten proposamen berritzaileen aldeko apustua” egin dutela.

Enpleguari eta herritarren segurtasunari dagokionez, herritarren segurtasuna hobetzeko Pro-

grama Integrala garatu dute. Programaren barruko diru-atal bat Hiri Debekatuaren Mapan arrisku-tzat izendatutako tokiak argiztatzeko erabiliko dute. Herrian zikin dauden orubeak garbitu eta egokitzeko ere diru-atala sortu dute. Horrez gainera, langabetuak kontratatzen dituzten enpresei laguntzak emango dizkiete.

Etxebizitza politika indartuz, Faustegoiena eta Arripausuetan erosteko edo alkilerrean hartzeko babeseko 250 bizileku egiteko proiektuei lehentasuna emango diete. Sei partzela Faustegoienakoak dira eta bat Arripausuetakoa. Lanak aurrean hastea dute helburu.

Gizarte ekintzaren arloan, Mankomunitateak martxan ipiniko duen Jantoki Soziala diruz lagunduko dute eta beharrean

dauden familiei bideratutako laguntzak handituko dituzte. Horrez gainera, tratu txarrak jasandako emakumeei laguntzeko zerbitzura diru-atala bideratu dute.

Beste proiektu “garrantzitsu” bi ere nabarmendu du. Tabira-Montorretainoko bidea egitea eta Landako eta Francisco Ibarra kaleetako trafikoa hobeto kudeatuko duen biribilgunea egitea.

Durango 1936 elkarteak proposatutako eskultura ipintzeko eta kale edo parke berri bati Ramón Rubial izena ipintzeko asmoak ere jakinarazi zituzten. ■ J.D.

**Faustegoiena eta Arripausuetan 250 bizileku egiteko proiektuari lehentasuna emango diote**

MAÑARIA

# Urkiolako naturgunearen araudia aldatzeko eskaria

Aho batez onartu dute Parlamentuan Aralarrek, sozialistek eta jeltzaleek adostutako proposamena

**J**oan zen egunean Eusko Legebiltzarrean izan zen osoko bilkuraren gai-ordenaren zazpigarren puntua izan zen Urkiolako naturgunearen baliabide naturalen antolamendu planari buruzkoa. Aralar alderdiak proposatutako legez besteko proposamena izan zen Gasteizko legebiltzarreko alderdiek eztabaidatu eta aho batez onartu zutena.

## 70 legebiltzarkidek bozkatu zuten Urkiolako naturgune araudiari buruzko proposamenaren alde

Aho batez, aldeko 70 botogaz, onartu zuten Aralarrek, sozialistek eta jeltzaleek adostutako legez besteko proposamena, eta bi eskari egin zizkion, beraz, Parlamentuak Eusko Jaurlaritzari: batetik, "Ingurumen, Lurralde Plangintza,


Nekazaritza eta Arrantza Sailak lehenbailehen ekin diezaiola Urkiolako Parke Naturalaren Natur Baliabideen Antolamendurako Plana aldatzeko prozesurari", eta "Zalloventa harrobiaren naturgunearen mugen barruko ustiapena debekatzea eta babesten diren ingurumen-balioekin bateragarriak ez diren erazketa-jarduerak debekatzea", bestetik.

Irailean legebiltzarrean onartutako legez besteko proposamenak ekarri zituen Maeztuk gogorra: "Zalloventa harrobiaren ustiaketa Parke Naturaletik kanpo uztea aurreikusten zen orduan". Bizkaiako Aldundiari naturgunearen erabilera eta kudeaketa plana aldatzea eskatzen zitzaion. Parlamentuaren agindua betetzeko borondaterik ez du ikusi Aralarrek, eta gaia beste behin parlamenturaino eramatera "Ingurumen Sailaren pasibitateak" eraman ditue-

la azpimarratu zuen Aralarrek. Bere garaian osatu zen baliabide naturalen kudeaketa planean salbuespen moduan onartu zela Zalloventa harrobiarena gogorra ekarri, eta "inondik ere onartu ezin dena inguru bat babesteko figura bat izendatu eta aldi berean ingurumena desagertaraztea helburu duen jarduera bat baimentzea da", esan zuen Maeztuk.

Eusko Abertzaleak taldeak, naturgunearen ordenazio plan berria egiterakoan "inplikaturik dauden eragile guztiengan arautegi berriak izango dituen ondorioak aintzat hartzea eskatu" eta proposamenaren alde egin zuen. Sozialistek ere "Zalloventaren historian protagonista izan diren kontzesio interesatuekin amaitzeko helburua" zehaztu eta alde bozkatu zuten. ■ I.E.

**"Ingurumen-balioekin bateragarriak ez diren jarduerak debekatzea" eskatzen du proposamenak**



Zuzenketak aurkeztu zituzten jeltzaleek eta sozialistek. J.F.

ZALDIBAR

# Itxialdia egingo du amnistiaren aldeko mugimenduak

Zaldibarko amnistiaren aldeko mugimenduak asteburuan, barikutik domekara, itxialdia egingo du Gaztetxean "euskal presoek eskubideen defentsan"

Zaldibarko amnistiaren aldeko mugimenduak itxialdia egingo du "euskal presoek eskubideen defentsan"; Gaztetxean egingo dute barikutik domekara. Zaldibarko amnistiaren aldeko mugimenduak eza-gutzerara eman duenez, itxialdiaren bitartez herriko hainbat eragilerekin bilduko dira, "euskal presoek muturreko egoera azaltzeko eta konpromisoak berresteko".

Durungaldeko amnistiaren aldeko mugimenduak deituta, hainbat mobilizazio antolatu dituzte astebururako, "euskal preso politikoen kolektiboa otsailean zehar egiten dabilen borrokaldiaz bat eginez". Izan ere, amnistiaren aldeko mugimenduak adie-

**Itxialdiaren bitartez, hainbat eragilez batuko dira, "presoen egoera azaldu eta konpromisoak berresteko"**

**Durungaldeko amnistiaren aldeko mugimenduak hainbat mobilizazio antolatu ditu astebururako**

razten duenez, "otsailean euskal preso politikoen kolektiboa bis a bis moduko komunikazioei uko egiten dabil, azkeneko hileetan senideei behartutako miaketak salatzen eta senide eta lagunentzako tratu duina eta begiruneko zor zaiela aldarrikatzeko".

Egitarauari dagokionez, ostiralerako elkarretaratzea antolatu dute herri guztietan. Barikuan goizeko 10:00etan, kontzentrazioa izango dute Durangoko epaitegi aurrean. Domekan, berriz, manifestazioa egingo dute Zaldibarren 18:00etan *Bizi arteko zigorrak ez, heriotz zigorrak ez!, Eskubide guztiak jabe, Euskal Presoak Euskal Herrira* lelopean. ■ G.A.



Durango otsailaren 5ean egin zuten manifestazioa.

BERRIZ

## 'Añeketan' emakumeen lasterketa

"Añeketan" izeneko emakumeentzako lasterketa antolatu dute Berrizen martxoaren zazpirako. Lehenengoz antolatu dute ekitaldi hori, eta parte hartu gura duten emakume guztiei zabalik dago; ez dago adin mugarik, izan ere, antolatzaileek adierazi dutenez, "gazteek eta nagusiek parte hartzea garrantzitsua da". Izena emateko epea zabalik dago, eta parte hartu gura dutenek Udaletxean eman behar dute izena, baina egunean bertan ere badago aukera lasterketa hasi aurretik. Hala ere, antolatzaileek azaldu dutenez, "hobe da izena aurretik ematea, dortsalak zenbatzeko".

"Añeketan" lasterketa martxoaren 8ko egitarauan sartuta dago, doakoa da eta emakumeak batu eta emakumeen aldarrikapenak plazaratzea da asmoa. Lasterketa Berrizburu futbol zelaian hasiko da eguerdiko 12:00etan, eta gero luntxa egingo dute. Hiru sari sinboliko egingo dira; lasterketa irabazten duenarentzat, parte-hartzailerik zaharrenarentzat eta gazteenarentzat.

Berrizko emakumeek Emakumeen Mundu Martxagaz bat egingo dute horrela. ■ G.A.

**Emakumeen lasterketan parte hartzeko epea zabalik dago, eta Udaletxean eman behar da izena**

GARAI

## Ortugintza ekologiko ikastaroa, 9an

Martxoaren 9an hasiko da ortugintza eta fruitugintza ekologikoaren gainean antolatutako ikastaroa. Dagoeneko zehaztu dituzte egunak eta ordutegia.

Itsasmenetik eta Urkiola Landa Garapenerako Elkartearen bultzadaz ipiniko da martxan ikastaro hau. Otsail hasieran ikastaroaren inguruko informazio bilerak egin zuten Garain, eta 14 lagunek parte hartu zuten. Bertan erabaki zuten, denen artean, zein izango zen egute-

**Hainbat gai jorratuko dituzte; baratzekain eta fruituzainei ere bisita egingo diete**

gia. 30 orduko iraupena izango du ikastaroak, eta astelehenean, martitzen eta eguenean garatuko da. Arratsaldeko 18:30etik 21:30era bitartean egingo dituzte ekintzak.

Oraindik ere badago ikastarora apuntatzeko aukera, telefono zenbaki honetara deituta: 94 607 25 36. Matrikula 50 euro ordaindu beharko dute parte-hartzaileek. Ortugintza ekologikoaren oinarriko teknikak, lurra lantzeko metodoak, izurrien inguruko informazioa, prebentzioarako aholkuak eta beste hainbat gai jorratuko dituzte. Baratzekain eta fruituzainei ere bisita egingo diete.



**BAUTISTA**  
MUEBLES Y DECORACIÓN

LLODIO ABADIÑO



Solitario zoragarria landuriko diamante distiratsuarekin

Lehen: 2.187,00 €

Orain: 113,00 €

*Zuk sinesten duzu?.....Guk ere ez*

*Orain benetako harribitxiak aurkezten dizkizugu*

**BAUTISTA BEHERAPENAK**



[www.bautistamuebles.com](http://www.bautistamuebles.com)

Santa Cruz poligonoa 1 zk LAUDIO (A-68aren 3 irteera) Urbitarte poligonoa 4 partzela, 2 pabiloia ABADIÑO (Eroski ondoan)

BEZEROAREN ARRETARAKO TELEFONOA: 94 672 77 00

## IZURTZA

# Herriaren lurralde antolamendua berrikusteko bidea

Hiri Antolamendurako Plana diseinatuko duen taldea aukeratzeko baldintza-orria onartu dute

**H**iri Antolamendurako Plan Nagusia idazteko zerbitzua-ren kontratazioari ekitea onartu zuten joan zen barikuko udalbatzarrean. Muñoz alkatea egon ez zenez, Iker Ballarin alkateordearen kalitatezko botoagaz egin zuten proposamenak aurrera.

**Gobernu Taldeko zinegotzi biren eta alkateordearen kalitatezko botoagaz onartu zuten kontratazioari ekitea**

Gobernu Taldearen aldeko botoa eta oposizioko jeltzaleen kontrakoa jaso zuen Gobernuaren baldintza-orri proposamenak. Udalbatzarrean bertan, lau ekarpen proposatu zizkieten jeltzaleek; alde teknikoari zegozkion bi zuzenketak onartu eta beste biak aintzat hartzearen kontra bozka-

tu zuen Gobernu Taldeak. Oskar Zarrabeitia bozeroale jeltzaleak, bestalde, "plana diseinatzeko prozesuaren gaineko gardentasuna bermatzea" izan dutela lau ekarpen horiek proposatzean helburu nabarmendu zuen: "herriarentzat hain garrantzitsua den plana osatzera herrira datorren taldea ahalik eta profesionalena" izatea.

Proposamen horiek Udaleko Batzordeetan eztabaidara proposatu ordez, udalbatzarrera ekarri izana kritikatu zien jeltzaleei Iker Ballarin ezker abertzaleko zinegotziak. Hiri Antolamendurako Plana idazteko ardura izango duen enpresaren hautaketa prozesua gidatuko duen baldintza-orria, onartu den moduan egoki ikusten dutela erantzun zien jeltzaleei.

Datozen asteetan, baldintza-orria argitaratu eta alegazioetarako epea igaro ondoren, Hiri Antolamendurako Plana garatzen haste-



Iker Ballarin ezker abertzaleko alkateordea eta Oskar Zarrabeitia jeltzalea. I.E.

lamendua diseinatzeko euren proposamenak aurkeztuko dituzte enpresek. Hortik aurrera, orain arte herriaren lurralde antolamendua gidatu duten Arau Subsidiarioen ordez, beraz, Hiri Antolamendurako Plana garatzen haste-

**Baldintza-orria argitaratu eta alegazioetarako epea igaro ondoren, plana garatzen hasiko da enpresa aukeratua**

ko lehenengo pausua eman dute. Herriaren lurralde antolamendua gidatzen duten Arau Subsidiarioak berrikusi barik egon dira 1996 urtetik. Lau-bost urteren buruan aurreikusten dute Udalean Plana amaitzea. ■ I.E.

## Udalak helegitea aurkeztu du radarren zigorragatik

Gezurrezko radarrak ipintzea Udalarari egotzi eta zigor ekonomikoa iragarri du Bizkaiko Aldundiak

Radar faltsuak ipini izana Udalarari egotzi eta santzio ekonomiko baten berri emanez Bizkaiko Aldunditik jaso zuten idatziari helegitea aurkeztu diotela jakirazi dute Udalean. Iker Ballarin alkateordeak jakinarazi duenez, "Udalak radarren kontuan ez elako zerikusirik ez daukala erantzun diegu beste idazki batean". Udalak aurkeztutako helegite horri Aldundiak zer erantzun emango dion zain daude Gobernu Taldean orain.

Gobernu Taldeak radarrak ipini ez dituela azpimarratu baina aldi berean gezurretako radarrak agertu zirenetik gidariak kontu handiagoz, astiroago, zeharke-

tzen dutela herria nabarmendu du Ballarinek, eta radar bat ipiniko balute herriak "onura nabarmena" izango lukeela defendatu du.

Oposizioan dauden jeltzaleek, aldiz, radarren inguruko gai honen berri komunikabideen bitartez izan dutela azpimarratu dute, eta Aldunditik jasotako zigorraren berri Gobernuak ez diela eman salatu dute. ■ I.E.

**Radarraren kontu horretan zerikusirik ez daukala erantzun du Udalak Aldundira bidalitako helegitean**

## ABADIÑO

## Eneko Etxebarria, jeltzaleen hautagai

2011ko udal hauteskundeetarako jeltzaleen zerrenda-burua izango da Eneko Etxebarria



Eguaztenean helarazitako oharrean eman du alderdi jeltzaleak jakitera Eneko Etxebarria izango dela 2011 urteko udal hauteskundeetara EAJk aurkeztuko duen zerrendaburua.

Martitzen gauean egin zuten ez ohiko batzarrean adostu zuten afiliatu jeltzaleek Etxebarria aurkezteko martxoko hauteskundeetarako zerrendaburua; berea izan zen, bestalde, aurkeztutako hautagaitza bakarra.

Mikel Garaizabalek eta legegintzaldi honetan Udaleko bozeroale izan duten Axier Garatek ere Eneko Etxebarriaren hautagaitzaren alde jarri agertu zutela azaldu dute jeltzaleek.

Ilusio handiaz hartu duela zerrendaburu ardura adierazi du 35 urteko Eneko Etxebarria, eta "urtebete barruko hauteskundeetara Abadiñorentzako eta abadiñarentzako ahalik eta programarik onena aurkezte" duela orain helburu nagusi.

Sei urtez Abadiñoko Uri Buru Batzarraren presidente izan da Etxebarria, eta hauteskundeetara aurkeztuko duen taldea osatzea izango du lehenengo lana. ■ I.E.

**Mikel Garaizabalek eta orain arte jeltzaleen bozeroale izan den Garatek ere Etxebarriaren hautagaitzaren alde egin dute**

## Udaleko lan-kontratuei buruz eztabaidan

Durangaldean 50 lanpostu sortzeko Amankomunazgoak martxan ipiniko duen programagaz bat egin ez izana kritikatu zioten oposizioko alderdi biek martitzeko udalbatzarrean Gobernuari. Axier Garate bozeroale jeltzaleak, "ezinbestekoak ez diren egitasmoetan Gobernuak egiten dituen gehiegizko gastuak aurrezteko" ere eskatu zuen: krisiari buruz iaz egin zen jardunaldian 5.000 euro gastatu izanari "neurrigabekoa" deritza Garatek.

**Udaleko kontratazioetarako Gobernuak daukan asmoen berri prentsan jaso izana salatu zuen Arkarazok**

Amankomunazgoak martxan ipinitakoagaz ez beste programa batzuekin jardungo duela Abadiñoko Udalak erantzun zion Jose Luis Navarro alkateak jeltzaleek egindako kritikari.

Lanpostuak sortzeko Gobernuak daukan asmoen berri komunikabideen bitartez jakin dutela azpimarratu zuen ezker abertzaleak. "Udalak sei lanpostu sortzeko ezezkua emateari buruz ez elako batzordetan ez dugu jardun", salatu zuen Igor Arkarazo zinegotziak. Udaleko gainerako talde biak aintzat hartu ditzala eskatu zion, bestalde, Arkarazok Gobenuari. ■ I.E.

**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea  
48215 IURRETA (Bizkaia)  
Tel.: 946 816 673  
Faxa: 946 817 636  
construcciones@zarateyexpe.biz



▣ MALLABIA

# Haurreskolako parkea estali eta langile bat kontratatu gura du Mallabiko Udalak

Tokiko Inbertsioekin eta Jaurlaritzaren laguntzekin martxan ipiniko dituzte bi proiektuak

**E**nplegua bultzatzeko bi egitasmo bultzatuko ditu Udalak. Itxaurti haurreskola aurreko parkea egokitzeko Espainiako Gobernuaren Tokiko Inbertsioetarako EPlanaren diru-laguntza baliatuko dute. Loiola alkateak azaldu duenez, 250.000 euro inguruko proiektua aurkeztu dute. Gaur egun haurreskolako umeez ez dute gelatik kalera irtetzeko leku egokirik: "Parkea estalita geldituko da eta jolasgunea ere egokituko dugu".

Bestetik, Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso du Udalak, lanaldi osorako behargin bat sei hilabeterako kontratatatzeko. Langile honek auzoetako bideak konpontzen jardungo duela azaldu du Loiola alkateak. "Herriko auzoetako bideak nahiko txukun ditugun arren, elurteekin eta euriek leku batzuetan hondatu egiten dira". ■ J.G.

**Tokiko Inbertsioekin Haurreskola aurreko parkea estali eta jolasgunea egokituko dute**

**Jaurlaritzaren diru-laguntzekin sei hilabeterako behargina kontratatuko dute auzoetako bideak konpontzeko**

Olgetaleku hori herritar denentzat zabalik egongo da. Arrapala ere jarriko dute kotxetxoagaz doazen gurasoendako.

## Sukaldariaren jubilazioa ospatuko dute

Mallabiko eskolan ia hiru hamarkadatan sukaldari behar egin duen Begoña Arrietak erretiroa hartu duela eta agur-bazkaria antolatuko diote. Txartelak salgai daude Udaletxean eta Kultur Etxean (15 euro), otsailaren 26ra arte, parte hartu gura duten denentzako. Bazkarirako hitzordua martxoaren 6an izango da, 14:00etan Mallabiko frontoian. Menuan paella, postrea, edaria eta kafea aurreikusi dituzte. ■ J.G.

▣ IURRETA

# Aurrekontua aurrera, jeltzaleen eta Ezker Batuaren botoekin

Joan zen barikuan egin zuten udalbatzarrean onartu zuen 2010erako aurrekontua gehiengoak

Ezker Batuko zinegotziaren eta Gobernu Taldeko lau zinegotzi jeltzaleen aldeko sei botogaz onartu zuten 2010erako aurrekontu proposamena joan zen barikuko udalbatzarrean. Elkarregaz osatutako aurrekontu proposamena izan ez den arren, EAJko Totorikaguena alkateak azaldu duenez, proposamena osatzeko Ezker Batuagaz alderatu dituzte hainbat atali buruzko zehaztasunak.

**14.300.000 euro pasatxo batzen dituen aurrekontua, guztira, 2010erako**

**Aurrekontu proposamenaren bozketan abstenitu egin ziren zinegotzi sozialista, popularra eta talderik bako Borja**

Abstenitu egin ziren, bestalde, Alderdi Popularreko eta Sozialistako zinegotzi biak eta talderik bako Borja zinegotzia. Proposamenen jasotzen diren inbertsioen ataleko zenbait partidagaz ez daudelako ados ez zutelako alde bozkatu azaldu zuten: ortu ekologikoak martxan jartzeko aurreikusten den diru-atalari larregizkoa deritzotela adierazi zuten bai zinegotzi sozialistak bai alderdi popularreko ordezkariak ere.

Udal Gobernuak aurkeztu eta gehiengoak onartutako 2010 urterako aurrekontu orokorrak, 14.300.000 euro pasatxo batzen ditu, guztira. Iazkoagaz alderatuta, %10 murriztuko dira inbertsioak orokorrean, Gobernuak zelanbait mantentzen saiatu direla dioen arren: bederatzita milioi eurokoak izatea inbertsio errealak jasotzen du aurrekontuak. ■ I.E.



Eskola aurreko jolasgunea herritar denek erabili ahal izango dute. Pello Mugarza

**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**

## ATE IREKIAK

**Go! Eskola Politeknikoa**  
**ARRASATE MARTXOAK 11 osteguna 17:30**

**Enpresagintza Fakultatea**  
**OÑATI MARTXOAK 6 larunbata 10:00-13:00**

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea**  
**ESKORATZA MARTXOAK 11 osteguna 18:00**

**ARETO NAGUSIAN**

etorri aurretik izena eman!

**902 110 436 - www.mondragon.edu/prest**

ANBOTO

# 'Iragarkilaburrak.com' sarean sartu da Anboto astekaria

Aste honetatik aurrera astekarian eta webgunean kontsultatu daitezke



Martxan da [anboto.iragarkilaburrak.com](http://anboto.iragarkilaburrak.com) iragarki zerbitzua.

Iragarki laburren zerbitzua zabaldu guran [iragarkilaburrak.com](http://iragarkilaburrak.com) sareagaz bat egin du Anbotok. Astekarian iragarkiei eskainitako espazioa mugatua izaten da, eta barikuro gaurkotzen da. Iragarkiak [anboto.iragarkilaburrak.com](http://anboto.iragarkilaburrak.com) helbidearen bitartez edo [www.anboto.org](http://www.anboto.org) webgunean uneoro doan jarri eta kontsultatzeko aukera dago orain. Interneten hiru hilabete eongo dira ikusgai. Astekarian berriz, sei astean. Iragarlek epe hori luzatu edo murriztea erabaki dezake.

**Astekariko irakurleek [anboto.iragarkilaburrak.com](http://anboto.iragarkilaburrak.com) webgunean iragarki laburrak jarri edo kontsultatu ditzakete**

**Iragarkiak sare sozialetan zuzenean argitaratzeko eta erabiltzaileak SMS abisuak jasotzeko aukera ematen du**

Iragarlek, argazkiak jartzeko aukera izateaz gainera, iragarkiak sare sozialetan zuzenean argitaratzeko aukera ere eskaintzen du. Erabiltzaileak abisuak SMS bitartez jaso ditzake.

**Elkarlana**  
Iragarki laburren sarean *Berria* edo *Goiena* lako euskarazko hogeitabat egunkari, aldizkari eta agerkari digitalek parte hartzen dute. Plazagune SL enpresak garatu du proiektua. ■ J.G.

ATXONDO

## Zuhaitz sortak eskuratzeko aukera, datorren barikura arte

Hainbat arbola banatuko ditu Atxondoko Udalak, Zuhaitz Egunaren harira

Urkiak, haritzak, pagoak, lizarrak... hainbat arbola mota banatuko ditu laster Atxondoko Udalak herritarren artean. Zuhaitz Egunaren harira, Bizkaiko Foru Aldundiak ematen ditu arbola horiek, eta aurreten hirugarren urtez banatuko ditu zuhaitz sortak Udalak. Sortetan 10-15 zuhaixkaraino egon daitezke. Atxondoarrek martxoaren 5era arte, datorren barikura arte, eskatu ahaliko dituzte arbolak Udaltxean.

David Cobos alkateak azaldu duenez, orain arte harrera ona

izan du ekimen honek, eta aurreko urteetan baino arbola gehiago eskatu ditu Udalak: "Iaz 250 inguru eskatu genituen, eta aurreten 350 eskatu ditugu". Herritarrei banatzeko eta Udalak berak herrian landatzeko izango dira zuhaitz horiek. Arbola txikiak direla aipatu du Cobosek, eta Udalak haztegi batean izaten dituela batzuk, geroago herrian jartzeko.

**Umeentzako ere**  
Arbola sortak herritarrei banatzeaz gainera, ikastetxera eta ludo-

tekara ere dozena bat zuhaixka eroango dituztela aurreratu du Atxondoko alkateak: "Azken urteotan Zuhaitz Eguna eskolan ere ospatzen dute, eta egun horretan umeek eurek arbolak landatzeko aukera izango dute". ■ A.U.

**Baserrietan, ortuetan, txaletetan eta ikastetxeetan landatzeko 350 zuhaixka banatuko ditu Udalak**

DURANGO

## Aitziber Irigoras proposatu du EAJk alkategai izateko

Aitziber Irigorasek azaldu duenez, martitzenean batu zen Durangoko uri buru batzarra eta bera da udal hauteskondeetarako proposatu duten hautagai bakarra. Durangoko EAJk bi itzuli erabiltzen ditu hautagaiak zehazteko, eta martxo erdialdean egingo litzateke ofizial Irigorasen izendapena. Lehenengo itzulian hautagaiak proposatzen dituzte, eta bigarren itzulian izaten da botaketa: "Esker oneko eta ilusionatuta nago nigan ipini duten konfiantzagaitik", adierazi du Irigorasek. Bera da uri buru batzarrean proposatutako jekide bakarra, eta, beraz, ezustekorik ezean bera izango da zerrendaburua datozen hauteskondeetan.

## Kontzertu berezia eta bazkaria Andaluziaren Egunean

Durangoko Udalak eta Andaluziako zentro kulturalak antolatu dituzte Andaluziaren Egunaren harira gaur eta bihar ospatuko dituzten ekitaldiak. Andaluziarren Zentroko kide eta gonbidatuen gaur iluntzeko hitzordua izango da lehenengo ekitaldia. Bihar da, baina, Andaluziaren Eguna, eta Tabira musika bandaren, Kriskitin dantza taldearen eta Andaluziarren Zentroko dantza taldeen emanaldia antolatu dute: otsailaren 27an, 19:00etan da kontzertu berezia San Agustinen. Asteburua borobiltzeko, otsailaren 28an, Gran Hotel Durangon bazkaria egingo dute.

ABADIÑO

## Urretxuar batek irabazi du San Blasetako Argazki Txapelketa



Carlos Mediavilla urretxuarrak irabazi du —goiko irudiagaz— aurtengo San Blasetako Argazki Lehiaketa; 400 euro jaso ditu. San Blasetako erroskilen eta kordioen postu bat ageri da argazkian, atzealdean baserri bat irudikatzen duen argazkia ikusten dela. Bigarren saria Patxi Cañete bilbotarrarentzat izan da (250 euro); idi-proben gaineko argazkia aurkeztu du lehiaketara Cañetek. Herriko argazkigile onenarentzako saria, berriz, Eneko Botanak jaso du, Sanblasetako kordioa sutan irudikatzen duen argazkiarekin. Guztira, 31 parte-hartzaile izan dira.

ELORRIO

## Torturak salatu ditu Aristegik

Joan zen astean Katalunian atxilotutako Adur Aristegi, Faustino Marcos eta Jon Rosales espetxeratzeko agindu zuen, zapa-tuan, Espainiako Auzitegi Nazionalako Fernando Grande-Marlaska epaileak. Atxilotu zituztenetik inkomunikatuta egon dira hirurak, eta torturatuak izan direla salatu dute. Adur Aristegi elorriarraren kasuan, hasieran Soto del Real espetxera eraman zuten. Atzo ezagutzera eman zuten Aranjuetzeko espetxera lekualdatu dute.

Bestalde, Polizia Nazionalak bi lagun atxilotu zituen martitzenean Bilbon eta Algortan, ETAgaz lotura dutelakoan. Operazio beraren barruan, jakinarazi zuten, Abadiñoko enpresa bat ere miatu zuten.

**GAER DESINFEKZIOAK**  
Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:  
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...  
Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79

Hemen agertu gura badozu  
**deitu!**  
94 621 79 02

## BERBAZ &gt;

# “Guretzat gogorra da bis barik egotea; eurentzat gogorragoa”

Deiak, eskutitzak eta bisitak kartzelan daudenen bizipoza direla diote euskal preso politikoek bi senide hauek

**O**ier Anduezen ama da **Beatriz**. **Aritz Arginzoniz**en arreba, berriz, **Maite**. Biekin euren senide presoek egorari buruz berba egin dugu.

## Zelakoa da Oier eta Aritzaren egoera?

**Beatriz Antxia:** Aste honetan 9 urte bete dira Oier atxilotu zutenetik. Caceresen dago. Abuztuan bere alaba jaio zen, Hize, eta abenduan bere neska-laguna atxilotu zuten: Araitz. Palentzian dago Araitz kartzelan, umeagaz. Hize jaio zenean, Oier etxera etorri zen bera ikustera, eta ordutik hiru bider ikusi du. **Maite Arginzoniz:** Aritz azaroan eroan zuten Aranjuezetik Jaenera. Han dagoenetik isolamenduan dago. 40 ordu egiten ditu zelda barruan. Patiora joateko 4 ordu edukitzen ditu goizean, eta hurrengo eguneko arratsaldera arte ez da irtetzen.

## Zelan daude animoz?

**B.A.:** Eurak ez dira inoiz kexatzen. Kaletik galdetzen digutenean, Oierrek dioena esaten diet, ondo dagoela, baina nik beti esaten diot infernua ezin daitekeela ondo egon. Batzuetan begietan ikusten zaio triste dagoela, baina haginak beti erakusten ditu, irribarrez. Araitzek ere ondo dagoela esaten du, baina ezin da umetxo bategaz kartzelan ondo egon. **M.A.:** Barrutik daramate samina. Ez dute gura gu arduratzea. Batzuetan igartzen zaie triste daudela, baina bisitetan beti agertzen dira alai.

## Zelakoa da kartzelako euren bizimodua?

**M.A.:** Esandako moduan, Aritz isolamenduan dago. Kondena betetzen dabilzanak ezin dira isolamenduan egon, beste presoek moduko baldintzak izan behar dituzte. Lehenago, Aranjuezen, ekonomatora edo dendarak joan ahal zen. Orain hori ere ez; kartzeleroei deitu behar die edozertarako. Zeldan, gainera, barroak eta sare bat dauka, eta ostean horma bat; ez dauka ia argitasunik. **B.A.:** Oier 7 urtean egon zen isolamenduan, baina orain beste presoek baldintzak dauka. Araitz, berriz, hiru urtera arte egon daiteke Hizegatz kartzelan. Bost urteko kartzela zigorra dauka, beraz, bi urte egongo dira banatuta. Araitz lekuz aldatuko dutela esan digute, baina ez dakigu noiz eta nora. Ea ematen digun denbora datorren hilean bisitatzeko. Martxoan bi kartzelatatik pasatu eta umea Oierri eramateko asmoa dauka. Legez, gurasoak eta umea kartzela berean egon beharko lirarteke, baina ez daude batera.



Juanra de la Cruz

“Presoak borroka mordoa egiten dabilza bisitetan gu ukitu ez gaitzaten”

## Katxeoak direla-eta, bisei uko egitea erabaki duzue...

**M.A.:** Ez daukate horretarako esku biderik. Orain katxeatzen uzten badiegu, gero biluztarari egingo gaituzte; eta gero nork jakin. Presoek borroka pilo bat egin dute gu ez ukitzeko. Gure artean haserretzea lortu gura dute, baina ez dute lortuko. Nik irailan ikusi nuen azkenekoz Aritz. Oraindik ez naiz Jaenera joan. Maitezean daukat hurrengo bisita, eta

“Presoak Euskal Herriratzea ez da gure kapritxoak; legeak dioena da”

kristaletik ezagutuko du bere iloba berria, kristala garbi badago! **B.A.:** Azken bisa abuztuan izan nuen. Hize jaio zenean, katxeoak hasi arteko hiru bisak Araitzek egin zituen umeagaz. Ordutik ez dugu bisik eduki; martxoan umeagaz joango gara bis berezia egitera.

## Arazoa konpontzeko itxaropenik baduzue?

**M.A.:** Azkenean, guk amore eman beharko dugu. Kartzeletara kartak

## Beatriz Antxia eta Maite Arginzoniz •

### Euskal preso politikoek senideak

- Oier Andueza durangarraren ama
- Aritz Arginzoniz elorriarraren arreba

bidaltzen gabiltza, baina ez digute kasurik egiten. **B.A.:** Guretzako bakarrik egindako legeak egin dituzte. **M.A.:** Gaixorik dauden presoak etxean egon beharko lirarteke, hiru laurdenak beteta dauzkatenak ere bai. Kondena osorik betetzeko Parot Doktrina sortu dute... Psikologikoki akatu gura gaituzte lege horiekin, baina presoak Euskal Herrira ekartzea ez da gure kapritxoak, legeek hori horrela izan behar dela diote.

## Zein izan da bizi izan duzuen momenturik txarrena?

**M.A.:** Atxilotu zuteneko bost egun horiek. Momentu horretan ez dakizu non eta zelan dagoen; egurra jasotzen dabilela dakizu, besterik ez. **B.A.:** Umea jaio zenean, Oier etxera etorri zen ikustera. Hemendik irten eta aste bi espetxeetan bueltaka ibili zuten: Langraiztik Burgosera, Galiziara, Caceresera... Bisitara joan eta bertan ez zegoela esan ziguten, ez genekien non zegoen. Horiek izan ziren momenturik gaitzenak.

## Eta momenturik onena?

**M.A.:** Bisak. Bera besarkatu ahal izatea, ukitzea. Kristalaren atzetik, azkenean, ez diozu ondo entzuten, kristala zikin dago... Presoentzako bizipoza dira bisitak, kartak eta telefono deiak. Oso garrantzitsuak dira. **B.A.:** Guretzat gogorra da bis barik egotea, eta eurentzat gogorragoa.

## Etixeraten senideek elkar laguntzeko aukera izango duzue...

**M.A.:** Bai, eta horregatik gura dute denagaz amaitu. Oso garrantzitsua da Etxerat. Beti daukazu telefono bat laguntzeko. Informaziorako, abokatuentzako, bidaiak antolatzeko... Etxerat salbazioa da. ■ A.U.



# EKONOMIA<sup>></sup>

## >BERRIZ

**B**ehargin bat hil zen trenak harrapatuta Berrizen joan zen ostiralean, barrerarik ez daukan Ausategi pasabidean. EAEn astebete hiru langile hil dira lan-istripuan.

Lan-istripua salatzeke astelehenean LAB sindikatuak istripua gertatu zen tokian elkarretaratzea egin zuen, *Lan istripu gehiagorik ez, aski da* lelopean. ELAk, berriz, Loiun langileak behar egiten zuen Cobra enpresaren aurrean; Eusko Trenak azpikontratatu. LAB sindikatuak esan duenez, "erabiltzaileen eta langileen bizia ezin dugu zortearren esku utzi, istripuak ez gertatzeko neurriak hartu behar dira langileok osasuna eta bizitza ez galtzeko". Sindikatuek istripu hauen oinarrian prekarietatea dagoela salatu dute.

LAB: "Neurriak hartu behar dira langileok osasuna eta bizitza ez galtzeko"

Euskal Autonomia Erkidegoan astebete hiru langile hil dira lan istripuetan; Berrizen, Muskizen eta Laudion

53 urteko behargina kamioi bati maniobra egiten laguntzen zebilen, horretarako, N-634 errepidea moztu zuen kamioiak maniobra egiten zegoela adierazteko. Kamioiak poste elektriko bat

## Sindikatuak Berrizko lan istripua salatu dute asteon

Elkarretaratzeak egin dituzte joan zen barikuko lan istripua salatzeke; LABek istripua gertatu zen tokian eta ELAk Loiu, enpresaren egoitza aurrean



LAB sindikatuak istripua gertatu zen tokian elkarretaratzea egin zuen astelehenean.

zeraman Eusko Trenbidearen garaje berrien lanetarako; bertara heltzeko treneko pasabidea igaro behar da. Kamioilaria pasabide aurrean gelditu zen, baina laguntzen zebilen behargina oinez

Sindikatuak istripu hauen oinarrian prekarietatea dagoela salatu dute

zihoan, trenbidera hurbildu eta Euskotrenen Eibar-Durango linea egiten zebilen tren batek harrapatu zuen. Behargina Cobra enpresan lehen mailako ofiziala zen elektrizitate muntaketan. ■ G.A.

## >DURANGO

### "Osasunagaz ez da jolasten", dio ELAk

ELAk delegatuen urteroko batzarra egin zuen Durangon, eta ondoren manifestazioa



ELAk manifestazioa egin zuen ostiralean Durangon.

Mutuak eta Gizarte Segurantzak beharginen osasunari dagokionez darabilten politika salatzeke manifestazioa egin zuen ELAk ostiralean: "Merkatu irizpideen arabera funtzionatzen dute eta ez osasun irizpideen arabera". Osasunagaz ez dela jolasten salatu du ELAk. Gainera, lau eskaera ere egin dizkie mutuei: "Bertara doana errespetuz tratatzea, alta indi-

bidualik ez ematea, gai laboralak direnean ez ezkutatzea eta enpresari morroi ez izatea".

Manifestazioaren aurretik delegatuen urteroko batzarra ospatu du ELAk Durangon: 2009ko balantzea egin eta 2010eko aurreikuspenak egin dituzte. "Patronalaren xantaiari ondo erantzun zaio eta aurtun ere jarraitzeko langileak gogor daude", diote. ■ G.A.

## >DURANGO

### Erraldek agerraldia egin du Legebiltzarrean, Aralarrek eskatuta

Erralde hiltegiak ordezkatzeko eta babesten duen eredia aurkeztu du bere agerraldian

Elikadura subiranotasunaren kontzeptuak, ekonomikoki ere proiektu bera subiranoa izatera eraman duela azaldu zuten, Erralde hiltegiak legebiltzarrean egin zuen agerraldian, joan den eguaztenean, Aralar legebiltzar taldeak eskatuta.

Erraldek asteazkeneko agerraldian azaldu zuenez, "elkaidura subiranotasunaren kontzeptuak, ekonomikoki ere, proiektu bera subiranoa izatera eraman du". Produkzio lokalaren apustuak eta zirkuitu txikien bideak, "proiektu bera errentagarritasunaren bidean jarri dute-eta". Horren adibide moduan, Bizkaiko Bildotsa aipatu dute, "kasu hau delako gure bidea ulertzeko adibide garbiena". Erraldek aipatu duenez, "Erralde proiektuak ez

du bidelagun handirik eduki sektoretik kanpo".

Aralarrek, Erralde hiltegia kudeatzen duten pertsonen agerraldia eskatu zuen Ingurumen, Nekazaritza eta Arrantza Batzordeko Mahaian parte hartzeko. Euren eskaeran hiltegia "enpresa eredugarri bat" bihurtu dela argudiatu dute, eta kudeatzailerik hiltegien arloan sustengatzen dituzten gogoetak entzuteko momentua dela azaldu zuten, "antza, Gobernuak hiltegi eta okelaren inguruan proiektu berri bat sustatu gura du-eta". ■ G.A.

Aralar: "Erraldek sustengatzen dituen gogoetak entzuteko momentua da"

## ■ kolaborazioa



Ainhoa Iturbe  
EHNE sindikatua

### Bizkaiko EHNEren Kongresua, etorkizuna landuz

Bihar dugu Zornotzan Bizkaiko EHNEren VII. Kongresua. Egin aurretik ere, bi gauza, behintzat, argi ditugu. Bat, aurreko kongresuan baino baserritar gutxiago gaudela; bi, gaudenak baino gehiago garelako beharrezkoak. Eta hori da gure erronketariko bat, hain zuzen: hurrengo zortzigarren kongresurako gehiago izatea.

Baserritar gehiago behar ditugu, gure herriak gero eta jateko gehiago behar duelako. Orain dela hamarkada batzuk, biztanle gutxiago ginen. Orain gehiago gara, baina baserritar gutxiago. Ekonomia alorrean seguru garelako bitxo arraro batzuk: bertoko merkatua gero eta handiago da, eta, hala ere, enplegua desagitzen da.

Hori ere bai baita gurea: janaria sortzen dugu, baina lana ere sortzen dugu. Urteetan milaka lanpostu galduarazi badizkigute, zergatik ez ditugu, behintzat, milaka horiek berriz sortzen? Hori ere bada gure erronketatik bat, jendeak gurea alor ekonomiko dela ulertzea.


Kalitateko lana, naturari kalte ahalik eta gutxien egingo dion lana. Hori beste erronka bat da. Ikerketa guztiek aldaketa klimatikoaren erantzule nagusienetarikoa bat nekazaritza jotzen dute. Baina kontuz, ez baserriko nekazaritza; honek CO2 isurketak murrizten ditu eta ez ditu gehiago isurtzen pakete, garraio eta abarretan.

Bertoko, baina munduarekiko elkartasuna: hori ere badugu gure erronken artean. Ez dugu beste herri batzuen kontura bizi nahi, gure lanetik baizik. Munduko baserritarren arteko elkartasunez eta emakume eta gizonen arteko berdintasunez.

Badugu hurrengo kongresura arteko nahiko erronka...

**Aurreko kongresuan baino baserritar gutxiago gaudela, eta gaudenak baino gehiago gara beharrezko**

# KULTURA<sup>></sup>



ANTZERKIA EMANALDIA

## Umeei zuzenduriko 'Artea' Durangon

**U**meentzat eta familia guztiarentzat pentsatutako lana da La Maquiné antzerki taldeak 2008an aurkeztu zuen *Artea*. Zehatzago esateko, bost urtetik aurrerako ikusleei zuzenduriko antzezlan da otsailaren 28an, 18:00etan, Durangoko San Agustin kulturunean ikusgai izango duguna.

Alvaro Guijarrok sortutako musika klasiko garaikidea eta Elisa Ramos eta Joaquín Casanovak osatutako ikuskizuna dira *Artea* osatzen dutenak. Hain zuzen ere, Ramos eta Casanova artista plastikoez sortutakoa da Durangoko San Agustinerak dakarten ikuskizuna; 2007an Granadan La Maquiné teatro sortu zutenak dira biak.

Txotxongiloak, musika eta eszenografia oso berezia uztartzen ditu ikuskizunak. Hazi bat arbola bilakatzen den prozesu naturalaren erritmora garatzen da ikuskizuna. Bisualki oso proposamen berezia da La Maquiné granadarrak domekan Durangora ekarriko duena.

*Artea* estatuko antzokietan erakusten jarraitzen duten arren, *El Castillo Rojo* izenekoa dute azken proposamena: *Artea* bezala, musika eta proposamen bisuala uztartzen dituen ikuskizuna da Washington Irving idazlea hil zela 150 urte gogoratzeko *Cuentos de la Alhambra* obran inspiratuta sortu dutena, Debussy eta de Fallaren musika duena. ■ I.E.

### 12 Christina Rosenvinge eta Tulsa

Gitarra eta euren ahotsak instrumentu nagusi dituzten abeslari bi arituko dira otsailaren 5ean Durangoko Plateruenean. Rock, country eta pop doinuak dakartzate.



### 13 'Desira plazer' aurkeztera

Gaur dute Durangoko Liburutegian Edorta Jimenez, Igor Estankona eta Josune Muñozek 'Desira plazer' erotismoaren bildumaren aurkezpena.

MUSIKA > EMANALDIA

# Christina Roseninge eta Tulsa elkarregaz Plateruenean

'Espera la pálida' diskoa dakar Miren Iza hondarribiarrak Tulsa taldeagaz

**L**ehenago Elektrobikinistal-dean jardundako Miren Iza hondarribiarraren taldea da martxoaren 5ean Durangoko Plateruenean zuzenean entzungai izango dugun Tulsa. Subterfuge ekoiztetxeagaz atera duten *Espera la pálida* da Tulsa taldeko Alfredo Nihara, Gabriel Marijuan, Miguel Guzman, Alberto Rodrigo, Charlie Bautistak eta Miren Iza musikariek ekarriko dutena.

Disko berria Karlos Osinagagaz ekoizteko aukera egin du azken urteetako ibilbide musikala Madril-en egin duen Iza hondarribiarrak: Anari eta Lisabogaz ekoizleak egindako lana oso gogoko duela

Ibilbidea Madril-en egin duen Miren Izaren taldea da Tulsa

Azaroan kaleratu zuen 'Tu labio superior' dakar Roseningek

nabarmendu du. Hain zuzen ere, *Espera la pálida* disko honetako *Araña* kantan beragaz kolaboratu du Anarik. Madriletik Tolosarako bidea egin zuen disko hau grabatzeko, eta Nick Caven *Into my arms* abestiaren bertsioa ere jaso du, besteak beste, diskoan.

Martxoaren 5ean Plateruenean entzungai izango ditugun abeslari bien, Christina Roseninge madrildarraren eta Tulsaren musika egiteko moduak asko partekatu izan dituzte. Bere musika ibilbidea 80ko hamarkadan abiatu zuen Roseningek, *Tu labio superior* diskoko abestiak aurkeztuko ditu Plateruenean. ■ I.E.



GEURE DURANGALDEA



Iñaki Etxezarraga, 'Etxe' Musikaria

## SGAE ala EZGAE?

"Su misión es proteger la creación y defender los intereses de sus socios" dio SGAEk bere webgunean, baina itxura guztien arabera etekin ekonomiko handiena ateratzearen aldekoak direla.

Jabetzaren gaineko eztabaidak ugari hazi dira azkenaldian; jabetzaren gainekoak baino gehiago, SGAEk egiten dituen gehiegikerien inguruko eztabaidak.

Duela gutxi atera da trikitilariak kalejirak egitearren egile eskubideak ordaindu beharko dituztela ere, eta galdera bat bururatzen zait.

Norenak dira kalejiran entzuten ditugun kantaren eskubideak? Gehienak herrikoiak badira, diru hori ez da herriarena? Eta trikitilariak ez dira herritarrak?

Gai oso zabala iruditzen zait egile eskubideen kontua. Ni ere bazkide naiz elkarte horretan, musikari gehienak bezala. Nik nire eskubideak defendatzeko eta egindako lanari etekina ateratzeko elkarte hau interesgarri dela deritzot.

Komunikabide, elkarte edo beste hainbatek euren onurarako erabilitzea ondo deritzot; beti ere artistarekiko errespetua mantenduz eta erabilitako kanta, liburu edo pelikulekin negoziarioan ibili ezean.

Ados nago musika kultura dela esatearekin, eta ados nago kultura herriarena dela esatearekin, baina ez nago ados SGAEk egiten dituen gehiegikeriekin ezta kultura doan izatearekin ere. Uste dut artisten lana baloratu beharrek zerbait dela eta eskubide eta etekinen arteko oreka bilatu beharra dagoela.

Bitartean, Ogasunarekin gertatzen den bezala, SGAE-taz ere ez gara libratuko.

DANTZA > LEHIAKETA

Elorrioko Arriola aretoko jesarleku gehienak bete ziren Kale Dantzen Akadantz lehiaketaren bigarren edizioaren emanaldirako. Dantzari gazteen ikuskizunekin gozatzera lagun asko batu zirela azpimarratu dute ekitaldiaren antolatzaileek.

Antolatzaileen berbetan jaso dugunez, iaz lehenengo saiakera eta ia-ia esperimentu ere izan zen Akadantz lehiaketaren bigarren edizioak proiektua egonkortzea ekarri du. "Oso balorazio positiboa egiten dugu", diote, "15 talde aritu direlako, aretoa ikusle ia beteta egon delako, eta giro oso polita gozatu ahal izan genuelako".

New style eta break dance arloetan lehiatu ziren 15 taldeetako partaide gazteen eskutik ikuskizun "ederra" izan zen zapatu iluntzean Elorrioko Arriolan.

**Lau sarien banaketa**

Ikusleentzat kaleko dantza ikuskizun berezia eta gozagarria izan zena, lehiaketa zen Akadantzen parte hartu zuten dantzari gazteentzat, eta new style eta break dance arloetan lehenengo eta bigarren sariak zer taldek lortuko norgehiagokan jardun zuten.

Zapatuko emanaldien ondoren eta epaimahai espezializatuak erabakitakoaren arabera, Team Rockers taldeak eraman zuen break dance sailean lehenengo saria, eta SoulFlava izeneko taldeak bigarrena. New style arloari dagokionez, Dance Day taldeak lehenengoa eta Zero Gravity taldeak bigarren saria jaso zituzten. ■ I.E.

# Dantzari gazteen break dance eta new style lehiaketaren arrakasta



Kepa Aginako

LITERATURA > ELKARRIZKETA

**Hiruroketorriko zarete barikuko Durangoko aurkezpena ala zeuen artean banatu egiten dituzue aurkezpenak?**

Josune eta biok bagatoz, berea da eta bildumaren ardura. Lehenengo aurkezpena izango dugu Durangokoa, eta liburua-aren nondik norakoak azaldu ondoren, emakumezkoen poesiaren ezaugarri nagusiak Jasonen eta gizonezkoenak neuk azaltzeko asmoa daukagu. Aurkezpenak, baina, nor datorren eta datorrenak zer jarrera dakarren araberakoak izaten dira beti, eta oso zabalik izaten gara gu.

**Idazle moduan, baina, izango zenituen irakurleekin halako zuzeneko hartu-emanetarako aukerak...**

Urteetan ibili izan naiz hara eta hona, oso sarritan egiten ez dudan arren. Azkene-ko aurkezpena Basauriko irakurle talde batez egin nuen, abenduan. Oso esker oneko hartu-eman izaten da liburute-gietan burutzen dena, eta batzen den jende kopurua baino, jarrera izaten da garrantzitsuena.

**Zelan sortu zen 'Desira plazer' egitea?**

Txalaparta argitaletxearen Literatura bildumaren arduraduna naiz; berau da euskaraz dagoen literatura erotikoren bilduma bakarra. Ni arduradun nintzenean hamar-hamaika liburu zeuden argitaratuta, eta hutsunea ikusi nuen poesia erotikoren alorrean. Arlo horretako bilduma liburuak ezagutzen nituen galegoz, frantsesez eta beste hizkuntza askotan, eta otu zitzaidan bilduma egiten hastea, erraza izango zelakoan. Gero konturatu naiz ez dela batere erraza.

**Eta elkarlana, zelan sortu zen?**

Emakumezkoen poesiari buruzko bilduma osatzeko emakumezko baten ikuspegia behar zela konturatu nintzen, eta horrela jo nuen Josune Muñozengana. Askoz ikuspegi gehiago izan zitezkeen, baina, behintzat, emakumezkoena eta gizonezkoena izatea gura nuen. Gero, ikusita euskal poesiaren hainbat eta hainbat liburu sariketakoak direla —eta ezkutuan geratutakoak— eta ikusita Igor Estankonak halako liburuen aipamen eta iruzkinak egin izan dituela, hari ere proposatu nion antologian sartzea. Sei hilabeteko lana izango zela pentsatzen nuena, azkenean ia hiru urtera joan da.

**“Sei hilabeteko lana izango zela pentsatzen nuen, eta ia hiru urtekoa izan da”**

**Zerk eragin du epeak luzatzea?**

Pentsatu genuena baino askoz liburu gehiago dira aztertu ditugunak, eta liburu guztiak irakurtzeak orduak eskatzen ditu. Liburua bera hartu eta nabari dalana itzela izan dela. Irakurri behar izan duguna, egin behar izan ditugun hautaketa eta bazterketak... Gero, idazleekin eurekin hartu-emanetan jartzea. Liburu guztietara jo dugu; lau-bost izen ezagunez gainera, ikusten ez diren liburuak ere aztertu ditugu. Horrek zerrenda luzeagoa izatea ekartzen du. Hasi nintzenean ez nuen esango hainbeste bazterreko eta galdutako liburu egon zitekeenik.

**Beste literatura batzuetan egindako bildumak izan dituzue eredu?**

Bai. Munduko literatura guztietan daude halako antologiak, eta euskal literaturan hutsunea handia zen. Alde horretatik, poz-ozik gaude, baina aztoratuta

# ‘Desira plazer’: erotismoak euskal literaturan bete duen paperaz

“Ez dut uste irakurleak itxaroten duenik hemen topatuko duena dagoenik euskaraz idatzita”, dio **Edorta Jimenez** idazle mundakarrak. Euskal literatura aztertuta, erotismoa ulertzeko moduak biltzen jardun dute Txalaparta argitaletxeagaz kaleratu duten **‘Desira plazer’** bilduma osatzeko Edorta Jimenezek, Igor Estankonak eta Josune Muñozek. Durangoko Liburutegian aurkeztuko dute gaur, 1968 eta 2008 arteko euskal literaturaren azterketaren emaitza den antologia.



eta ikaratuta ere bai, bestalde, kanpoan utzi dugun zeozer egongo delako... Gure ilusioa edizio hau agortzea eta lana berri-ru eta hobetzen joatea litzateke.

**Aztertutako testuetan erotismoa modu esplizituan zein ezkutuan erakusten duten olerkiak daude.**

Anitza da bai. Alde batetik, erotiko ez erotiko sailkapen horretan ez gay, ez lesbo ez hetero ez ezer ez bereiztea izan dugu irizpide nagusia. Liburuak argitaratu izan diren ordenean sailkatu ditugu olerkiak, beste bereizketarik egin barik. Beraz, euskal poesiaren irakurketa kronologikoa ere bada liburu hau. Aukeran geneukan bide bat zen guk eskua ez sartzea, ordena kronologikoa egitea, eta hautu aberasgarria delakoan nago.

**“Liburuak argitaratu izan diren ordenean sailkatu ditugu olerkiak”**

**“Erotismoa definitzea gaitza da; hautaketa egiteko metodoa ez da zientifikoa”**

**Hiru aztertzaileok zer aintzat hartu eta zer ez adostea gaitza izan da?**

Bai, gaitza delako erotismoa definitzea. Muga horien barruan mugitu izan gara... Gaitza da antologoak egiten duen lana azaltzen; urteetan, denbora luzez liburu-artearen “hau bai, hau ez” begiratzen ibili izana. Hautaketa ez da zientifikoa, ez dago metodo zientifikorik. Norberaren senak zer agindu duen izan daiteke zuzenagoa edo okerragoa, eta, horregatik, kritiken zain geratzen gara.

**Oraindik ere apurto ez ditugun tabuak azaleratzen ditu liburuak. Gauza harri-garriak topatuko ditu irakurleak?**

Baiezkoan nago. Ez dut uste irakurleak itxaroten duenik hemen topatuko duena dagoenik euskaraz idatzita. ■ I.E.



**“Euskal idazle batzuen lanean oso presente dago erotismoa”**

Emakumezkoen eta gizonezkoen ahotsak daude, erdi eta erdi. Gero, irakurleari gertatzen zaion lana da, Jimenezen berbetan, alderaketak egitea: zeintzuk diren erotikokoagoak, hizkera berezirik badagoen ala ez... “Irakurleek plazer hutsez irakurri edo azterketa sakonagoak ere egin ditzakete”, dio Jimenezek, “eta euren buruei galdetu: zelan landu ote da gay sexua edo sexu lesbikoa edo heteroa euskaraz?”

Izen batzuk behin eta berriro agertzen direla azaldu digu Jimenezek: liburuak

“top bost edo sei” moduko bat osatzen du euskal poesia erotikoa. Irakurleak ohartuko da, dio idazle mundakarrak, “Itxaro Bordaren poesian, adibidez, guztiz presente dagoela erotismoa”.

Hori, baina, irakurle bakoitzak egingo du, “liburua poliedrikoa delako: ertz eta irakurbide asko dauzka”. Egileentzat pozgarriena jendeak liburuaren apalategian edukitzea eta gozamenerako baliatu ostean osatzen laguntzea litzateke; falta direla deritzon egileak proposatzea.

BERTSOLARITZA > IKASTAROA

**B**igarren urtea izango da aurtengoa DF bertsozale eskola antolatzen dutena Durangoko Plateruenean. Martxoaren 4an izango da lehenengo saioa, eta egun berera arte dago izena emateko aukera, antolatzaileek azaldu dutenez. Lehenengo edizioaren arrakasta nabarmendu eta aurtengo egitaraua eman dute asteon jakitera. Bertsogintzaren inguruko dibulgazioa egiteko helburuz, berbaldirmatuko lau saio izango dira aurtentzen.

Datorren egunean izango da lehenengo saioa, eta beste bana ondoren, martxoko hurrengo asteetan. DF bertsozale eskolaren aurtengo ekinaldia zabaltzeko Euskal Herriko txapela lau biderrez jantzi duen Andoni Egaña zarauztarra izango da Plateruenean: martxoaren 4an, 20:00etan, izango da estreinako saioa. Berak bizitako Bertsolari Txapelketa Nagusiei, bertan parte hartu duen zazpi aldiei, errepasoa egingo die Egañak, aurre-

# DF bertsozale eskola: bertsoaz gehiago gozatu eta jakiteko

Martxoko bi egun eta bi eguaztenetan izango dira DF bertsozale eskolaren bigarren edizioeko saioak: Egaña izango da lehenengo emaila

ko edizioeko parte-hartzaileen proposamenez aukeratutako gaien. 1986 eta 2009 urteen arteko txapelketen eta bertsozaren bila-

Bertsogintzaren 1986tik honako bilakaera aztertuko du Egañak

Berriozabal eta Elizasu gai-jartzaileak gidari bigarren saioan

Izen-emateari buruzko argibideak jasotzeko: [kultura@plateruena.net](mailto:kultura@plateruena.net)

kaeraren azterketa egingo du Andoni Egañak martxoaren 4ko lehenengo saioan.

Gai-jartzailetzari buruzkoa izango da bestalde, martxoaren 11ko bigarren saioa: Unai Elizasu eta Maite Berriozabal gai-jartzaileek gidatuko dute bigarren saioa. 2009ko Txapelketa Nagusiko gai-jartzaile taldeko kide izan ziren biak, eta txapelketako gaien inguruan jardungo dute.

Gara eta Berria egunkarietan txapelketaren jarraipena egin duten Agin Rezola eta Iñaki Aurrekoetxea izango dira hirugarren saioko gonbidatuak: 2009ko txapelketak bertsozari egindako ekarpenak landuko dituzte.

Amaitzeko, martxoaren 24ko azken saiorako, Eider Rodriguez idazlea eta Asier Altuna zinegilea gonbidatu dituzte Platerueneko saiora. Txapelketari eta bertsozari buruzko euren ikuspegia azalduko dute. ■ I.E.



Iazko DF bertsozale ikastaroan parte hartu zuten lagunak. J.Fernandez

MUSIKA > EMANALDIA

## Des-kontrol arrasatearra Elorrioko Gaztetxean

Martxoaren 27an da Des-kontrol taldearen punk eta oi! doinuak entzuteko hitzordua Elorrion



Taldea arrasatearrak *Aurrera begira* diskoan bildutako punk eta oi! doinuak zuzenean entzuteko aukera da otsailaren 27ko Elorrioko Gaztetxeko kontzertua; 1996an sortutako Des-kontrol taldearen musika eta berben indarra zuzenean entzuteko. Iazko uztaile, irail eta urrian Katarain estudioan grabatutako *Aurrera begira* zazpigarren diskoak aurkeztuko dute bertan: soinu eta ahots indartsu eta zakarra eta erritmo biziko kantak batzen dituena.

Punkaren hasieretako erritmo eta doinuak gogora ekartzen dituzten abesti labur baina biziak, Elorrioko Gaztetxean bihar. ■ I.E.

Des-kontrol 'Aurrera begira' aurkeztu izango da Elorrion

ARGAZKIGINTZA > ERAKUSKETA

## Leo Simoesen erretratuak Photomuseumean ikusgai

Martxoaren 28ra arte izango da Leo Simoes iurretarraren 'Abentura bestearekin' Zarautzen

Joan zen martitzenean zabaldu zuten eta martxoaren 28ra arte ikusgai izango da *Abentura bestearekin* bildumaren barruan Leo Simoes iurretarraren argazkilaria osatutako lana. Erretratuak dira Zarautzko museoan ikusgai dauden lanak, Iurretako Kultur Etxean eta Durangoko Museoan ere ikusgai egon izan direnak.

Aurretik, Espainia eta Portugalen ere erakutsi izan ditu Simoesek bere argazkiak. Izan ere, 90eko hamarkadatik bizi da argazkilaria Iurretatik kanpo. *Abentura bestearekin*, 2006an egindako argazkien bilduma da:

azken urteetan Granadan bizi eta lan egiten duen iurretarrak azaldu duenez, "psiko-argazkiak" dira erakusketan honetakoak.

Zuri-beltzeko argazkiak dira beste hilabete batez, martxoaren 28ra arte, Euskal Argazki eta Zinemaren Zarautzko Museoan bisitagai daudenak. ■ I.E.



**PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia**

www.plateruena.net

OTSAILAK 5 22:00etan  
CHRISTINA ROSENVINGE + TULSA  
HEINEKEN MUSIC SELECTOR  
KONTZERTUA. Sarrera: 12, 10 / 15 euro.

OTSAILAK 12 22:00etan  
BIZARDUNAK +  
LES FABULOSERS  
KONTZERTUA. Sarrera: 8-10 euro.

OTSAILAK 13 19:00etan  
DANTZALDI IBILTARIA  
ERROMERIA. Sarrera doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

**ARTEA**  
La Maquiné (Granada)

San Agustín KULTUR GUNEA  
DURANGOKO UDALA

Otsailak 28 • 18:00etan

**HITZ**  
Liburudenda

11-51 601 07 76 Artekale, 14 Durango

# MARTXOAN SEKULAKO ESKAINTZAK GAURSAN BESTERIK EZ!



**CLIO  
EMOTION**  
1.2 75cv 16V 5P (2008)

**9.800\*** €



**MÉGANE  
EXPRESSION**  
1.5 dCi 105cv 5P (2007)

**9.950\*** €



**LAGUNA  
AUTHENTIQUE**  
1.9 dCi 110cv 5P (2006)

**10.800\*** €



**TRAFIC FURGÓN**  
1.9 dCi 100cv 4P  
2900 Largo normal (2006)

**11.800\*** €



**MÉGANE  
DYNAMIQUE**  
1.5 dCi 105cv 5P (2009)

**16.400\*** €



**ESPACE  
EMOTION**  
2.0 dCi 130cv 5P (2009)

**21.800\*** €



**DACIA LOGAN BREAK  
LAURÉATE**  
1.5 dCi 85cv 5P (2008)

**10.600\*** €



**SEAT LEÓN  
STYLANCE**  
2.0 TDi 140cv 5P (2007)

**10.900\*** €

**RENAULT  
OCASIÓN**

**ZUK DENA NAHI DUZULAKO**


\* P.S.P. transferentzia gastuak barne. 10/03/31a arte edo (zakinak amaitu arte balio duen eskaintza. Ikusitarazitako eta eskainitako bertsioak desberdinak izan daitezke.



**GAURSA** ARRIANDI, 12. IURRETA. TELEFONOA: 94 620 33 00. [www.gaursa.com](http://www.gaursa.com)

# “Orain absoluzioa eskatzen dugu, gero justizia pertsonal zein karguak”

Martxelo Otamendik (Tolosa, 1957) 1984an izan zuen lehenengoz hartu-eman zuzena euskal komunikabideekin, *Egin* egunkarian. Gero ETBn ibili zen, hainbat lanetan, eta 1993an *Egunkariako* zuzendari kargua hartu zuen. 2003an itxi zuten euskarazko egunkari bakarra, bera ere atxilotuz; urte berean jaiotako *Berria* egunkariko zuzendaria da gaur egun.



Juanra de la Cruz

**D**urangoko Plateruenean berbaldia eskaini zuen eguaztenean Martxelo Otamendik, *Egunkaria* auzia dela-eta burutzen dabiltzan biraren barruan. Iñaki Uria, Joan Mari Torrealdai, Xabier Oleaga eta Txema Auzmendigaz batera, epaiaren zain dago *Berriako* zuzendaria.

*Epaiketa amaituta, absoluzioa eskatzen eta itxaroten duzue...*

Horixe da duela zazpi urtetik itxaroten duguna. Urte askoan borrokatu dugu epaiketarik ez zedin egin, eta epaiketa egitea ia ezinbestekoa bihurtu zenean, absoluzioa eskatzen hasi ginen. Lau haizetara esaten gabiltzana zera da: onartuko dugun irtenbide bakarra, irtenbide partziala izango dena, absoluzioa izango da.

*Zazpi urte bete ziren joan zen zapatuan operazioa egin zenetik. Denbora lar, beharbada...*

Bai. Egia esaten badizut, gura gu nuen epaiketa egingo ez balitz. Kaletik nindoala, epaiketa ahalik eta arinen egiteko gogoia izango ote nuen galdeztzen zidan jendeak, eta nik txantxetan esaten nien:

“Bibliako azken juizioa eta *Egunkariarena* aldi berean egin beharko lirateke”. Izan ere, sasoi hartako akusazioarekin, epaiketak kartzela ekarriko liguke. 2006an, fiskal berri batek auzia aztertu eta behin-behinean bertan behera uzteko proposamena egin zuen. Oso garrantzitsua izan zen guretzat. 2009ko ekainean egindako azken aurreaioan, guk artxibatzea eskatu genuen, fiskal horrek ere behin betiko ixtearen alde egin zuen. Horrek esperantza eman zigun.

*Fiskalak ez baina akusazioak berean segitzen du...*

Bai, baina horiek profesioz egiten dute hori. Auzitegi Nazionalean paper jakin bat duten erakunde batzuetako abokatuak dira. Euskal gataz-

karekin lotura daukaten auzi guztietan pertsonatzen dira, fiskaltzaren zelatan beti: ikusten badute fiskala bigun dabilela, haiek eskaera gogortzen dute. Ez dugu ahaztu behar akusazio pribaturik ez daukagula, ezta fiskaltza edo estatua-renik ere. Herri akusazioagaz batera egin da epaiketa hau.

*ETAren aginduetara lan egin zenutela dio Guardia Zibilaren txostenak. Zuek behin eta berriz esan duzue Egunkaria independentea zela...*

Hala da. Hori bazekiten gure irakurleek, langileek, akziodunek, klase politikoak, administrazioak, herritarrek, euskaltzaleek... Mundu guztiak zekien Joan Mari Torrealdai, Txema Auzmendi, Martin Ugalde, Joseba Jaka, Iñaki Uria eta abar ez zirela ETakoak, eta ez zutela ez ETAren ez beste inoren menpe jardun.

*Absoluzioak, baina, konponduko al du sortutako kaltea?*

Horregatik eskatzen dugu

“Fiskalak auzia bertan behera uzteko egindako eskaerak esperantza eman zigun”

“Ez dugu ahaztu behar ez daukagula akusazio pribaturik, ezta estatua-renik ere”

“Urte askoan borrokatu dugu epaiketarik egin ez zedin”



# dugu, eta kolektiboa ”

“orain absolutioa eta gero justizia”, Joan Mari Torreldaik oso ondo dion moduan. Absolutioa urgentziazkoa da. Justizia, bi ikuspegitik: pertsonala eta kolektiboa. Pertsonala atxilotuena, epaituena, langileena, irakurleena... da. Kolektiboa euskalgintzarena da; euskarazko herrigintza eta herrigintza sozialarena.

**Bestalde, hainbat eragile, alderdi eta erakunderen babesa jaso duzue. Europako Legebiltzarrean ere izan zinen joan zen astean...** Bigarren biderrez izan gara Bruselan. Izaskun Bilbao, Oriol Junquera katalana, Ramon Tremosa, korsikarrak... hainbatetik lagundu digute. Eurei esker, 25 eurodiputatuk gure aldeko agiria sinatu zuten. Guretzat oso garrantzitsua da nazioarteko foro horietan gure gaia agendan egotea.

**Herritar eta norbanakoek ere elkartasuna adierazi zuten Bilboko manifestazioan. Babestuta sentitzen al zarete?**

Babestuta eta maitatuak. Herritar anonimoaren elkartasuna da onena, ezagutzen ez duzun jendearena. Askotan erdalduna izaten da: “Ya se que eres de *Egunkaria*, ¿estamos con vosotros!” esan izan didate. Trenean, semaforoan, jatetxean, autobuseko gidariak klaxona jotzen dizunean... Parlamentariena-eta eskertzeak eta garrantzitsua ere bada, baina funtzio politiko edo administratiboak dituzte.

**Atxiloaldian tratatu txarrak pairatu zenituztela salatuz zenuen. Zelan dago gai hori?**

Salaketa bakoitza bere aldetik doa. Nirea, Espainiako ibilbide judizial osoa eginda, Estrasburgoko Giza Eskubideen Epaitegian sarrera emanda dago, onartu edo atzera bota zain. Xabier Oleagarena Auzitegi Konstituzionalean dago, eta Iñaki Uriarena artxibatuta. Txema Auzmendirena “libro judicial” baten dagoela esan daiteke, ez dakigu non dagoen.

**Horretaz gainera, beste hainbat erabaki hartu zituzten estatuak zein Auzitegi Nazionalak. Kerekilak, auzipetze gehiago...**

Hor Guardia Zibilaren obsesio bat dago euskalgintzarekiko; euskararen munduarekiko. Lehen AEK eta Elkarregaz egin legez, orduan guregana etorri ziren, Martin Ugaldede kultur parkera. Guardia Zibilak tesi bat egin zuen: euskararen alde erakunde publikoetatik lan egitea bidezkoa eta konstituzionala da; euskararen aldeko herri mugimenduaren edo ini-

MARTXELO OTAMENDI

“25 eurodiputatuk gure aldeko agiri bat sinatu zuten; guretzat oso garrantzitsua da nazioarteko foro horietan gure gaia agendan egotea”

“Herritar anonimoek emandako elkartasuna da onena, ezagutzen ez duzun jendearena”



Juanra de la Cruz

Egoera judizial honek uzten dion “denbora apurrean”, bizi duten krisi sektorialari aurre egiteko metodoak bilatzen dabil Otamendi; gaur egun mundu mailako eredurik ez dagoela dio

ziatiba sozialen lana ETaren menpekoa da.

**Auzi ekonomikoa ere hor dago, jende gehiagori eragiten diona eta zigoreskaera gogorragoekin...**

Auzi horretako batzuk gurean ere badaudelako dago Auzitegi Nazionalean. Instrukzio epailearen tesia honakoa da: gure auzian ETakoak direnez, delitu ekonomiko bat egitean ETakoak dira, eta ETaren zerbizura egiten dute. BEZ tipo batzuk ez ordaintzea leporatzen digute, baina sekula ez dira ausartu esatera diru hori ETari eman genionik. Beraz, non dago lotura? Lehenengo auzian absolbituta irtengo bagina, seguru gaude bigarrena Donostiara edo Tolosara etorriko litzatekela. Ustezko delitu fiskal arrunt bat izango litzateke, beste asko legez.

**Gaur egun ‘Berria’ dago kalean. Zer moduz doa proiektua?**

Hobeto guran, baina ondo. Gainera, EKT (Euskarazko Komunikazio Taldea, Berriaren argitaratzailea) indartuta ate-

“EKT indartuta atera zen Egunkariaren itxieraren ondoren; jendeak diru asko eman zigun”

ra zen *Egunkariaren* itxieraren ostean. Jendeak diru asko eman zigun proiektua martxan ipintzeko. EKT talde iza-teko jaio zen; argi geneukan egunkari bat baino zerbait gehiago izan gura genuela. *Berria* egin dugu eta gehiago saltzen da, harpidedun eta akziodun gehiago dauzka, 8 Hitzatan parte hartzen gabiltza, *Hamaika Tebistan* gauden murgilduta, *Nora* aldizkarian sartuta gaude, Inprimategi bat sortu da Zumaian eta horretan ere bagaude beste batzuekin batera... Interneten ere garatuz goaz: *Berria Tebista* lantzen ari gara elkarriz-

keta eta abarrekin. Komunikabideen tropel horretan ondo gabiltzala pentsatzen dut.

**Aurrerantzean ere izango duzue erronkarik...**

Alde batetik, epaiketa ondo amaitzea nahiko genuke, bai pertsonalki bai euskal esparruari dagokionez. *Egunkaria* auzia herri kausa bat bihurtu da, jendearen babes, laguntza eta mobilizazioengatik. Herri honetan behin-goagatik irabazi gura dutenen sinbolo edo ikono bihurtu dela esango nuke. “Bazen garaia!” esango luke jende askok. Gainera, ematen du gauden egoera politikoan ere jendea ilusionatzen dabilela. Bestetik, komunikabideak krisi sektorial batean murgilduta gaude, krisi ekonomikoa hasi baino lehenagotik. Gainera, *Egunkaria* jaio zenean, 1990ean, izan gura genuenaren ereduak zeuden, gure erara ekartzeko: *New York Times*, *Clarín*, *El País*, *Le Monde*... Horregatik, AEBetako hauteskundeetara edo Joko Olinpiarretara joan ginen. Euskarazko prentsa mundu osoko egunkariak zeuden tokian egotea lor-

tu genuen. Orain ez dago eredurik, ez dago munduan inor beste erakusten. San Francisco, esaterako, Euskal Herria lako bida, eta ingelesez zeukan egunkari bakarra galdu du. Batzuk jaus-tan ari dira, eta tokiko esperientziak kenduta, ez dago inor berrikuntzarik planteatzen.

**Zerbait gehitzeko?**

Eskerrak eman gura nizkioke *Anbotoren* bidez Durangaldeko jendeari, *Egunkaria* jaio zenean emandako laguntzagatik, horren osteko irakurle eta bezeroei, eta *Egunkaria* ixtean elkartasuna eta berotasuna eskaini ziguten guz-tiei. ■ Markel Onaindia.

“Egunkaria auzia herri kausa bat bihurtu da, jendearen babes, laguntza eta mobilizazioengatik”



# ERITZIA >

## Gutunak @

### Elorrioko inauteriak

Aurten ere, Elorrioko Udalak inauteri egunerako ekintzak prestatu ditu. Egun honetako egitarauaren barruan, goizez, ikastetxeen desfilea, ume txikientzako antzerkia eta haur parkea zeuden.

Ikastolako ikasleek goizeko ekintza hauetan parte hartzen dute, ikastolako jaialdiaren ondoren. Gure aldetik, Udalak proposatzen dituen ekintzetan beti parte hartu izan dugu, baina azken urteotan eta aurtengoan ere, zailtasun handiak aurkitu ditugu.

Lehenengo eta behin, kartelean ikastetxeen mozorro desfilea iragarrita zegoen, baina ikastolarekin hori gauzatzeko harremanetan jarri ez direnez, ez dugu parte hartu, eta gure ohiko jaialdia egin dugu.

Horrez gain, Udalak proposatutako ekintzak kontuan izanik, gure antolaketa prestatzen dugu. Hori dela-eta, aipatu jaialdia 11:00etarako bukatuta egoten da eta gure txikiak 11:30erako antzerkira joateko garaiz ibiltzen dira. Baina, urtero, antzerki hori berandu hasten da (aurten 20 minutu beranduago), eta gure ikasleak kaltetuak izaten dira zain egon behar dutelako edo ikuskizuna osorik ikusteko aukera barik gelditzen direlako. Hori guztia arduradunek ordutegi hori behar bezala errespetatzen ez dutelako gertatzen da, ez antzezleek erruz.

Bestalde, puzgarrietan ere arazoak izan genituen. 12:00etan hasiko zirela iragarrita zegoen, eta hau ere 20 minutuko atzerapenarekin hasi zen, guri horren arrazoirik eman barik. Honen ondorioz, gure ikasle eta irakasleek beste aukera batzuk bilatu behar izan zituzten.

Kexa bezala hau adierazi nahi dugu: inauteri eguna denon edo herriaren ospakizun bat baldin bada eta denon partaidetza bultzatu nahi badu, Udalak, egitaraua kalerratu aurretik, ikastetxe guztioi gonbidapena egin beharko liguke, eta gero bakoitzak erabakiko du parte hartu ala ez. Era berean, ekintza guztien ordutegia errespetatzen dela bermatu beharko luke. Lehenago adierazi bezala, gure barne antolaketa inolako arazorik gabe aurrera eraman ahal izateko.

Gure ume eta irakasleek horrelakorik gehiago jasan ez dezaten, gure iradokizunak kontuan hartuko direlakoan gaudete.

Elorrioko Txintxirri Ikastolako Errektore Kontseilua

## Klik batean @



### Kablea dingilizka topatu dute

Iurretako herrigunean, Bixente Kapanaga kalean, kable elektriko hau zintzilik dagoela konturatu da *Anbotoko* irakurle bat. Berehala erredakziora hurreratu da egoeraren berri emateko. Astekariaren bitartez dagokionari kablea konpontzeko ere eskatu dio iurretar honek.

## Sei hankako mahaia



Sergio Murillo  
EAJ

### Erantzun zehatzak eskaera zehatzei


Sarri askotan, politika eta gazteak alenduta dagozela esan ohi dabe. Beste hitz batzuekin esanda, gazteoi politikaz ez arduratzea leporatzen deuskue. Baina, irakurtzeari ekin badeutsazu, aurrekoagaz guztiz bat ez natorrenez, hausnarketan lagundu egidazu.

Orain hile bi argitaratutako gazteen argazkiak zinonez, 13 txosten estatistikotan argitaratutakoa kontutan hartuz, hogeita hamar urtetik beherako gazteen arazo nagusi biak laneratzea eta etxebizitza ziren, hurrenez hurren.

Aurrekoa aintzat hartuta, ez dago lanean jartzea baino. Horri ekin deutso EAJ 2010eko aurrekontuak onartzeko prozesuan. Eztabaida antzuak alde batera itziz, beste alderdi politikoei akordioetara heltzeko jarrera hartu eta 2010 honetan aurrekontuak izango ditugu. "Ditugu" horrek durangar guztiak jartzen ditu aurrekontu horreen jabe, edo, bestela esanda, durangarren beharizanak asetzeko tresna bat daukagu 2010ean.

Beharbada, orain artekoak ez deutso ekarpen barritzailerik egiten irakurlearen ikuspegiari; saiatu naiten gogorrago. Aurrekontu horreek, onartu bezain laster martxan jarriko ditu Faus-tegoienan eta Arripausuetan babeseko 200 etxebizitza egiteko planak, edo eskualdean Aldundiaren laguntzaz 50 lanpostu sortzeko egitasmoa ahalbidetuko dau, besteak beste.

Izan daiteke, arestian aipatutako gazteen politikarekiko interes eza egia izatea, baina gazteen intereseko gaiek badaukie zerikusia politikarekin. Ziur nago gazte guztien arazo guztiak ez dituela aurrekontu honek konpontzen, baina ekarpen xume bat da, durangarren, eta durangar gazteen, arazoei erantzun zehatza emoteko.



**Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org**  
**Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN**  
**zenbakiagaz batera bialdu behar dira.**

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

**DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)  
diruz lagundutakoa



**anboto**  
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte  
2010eko otsailaren 26a - 9. urtea - 363 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria: Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Pello Mugarza, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde eta Gemma Aldalur.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Ana Domínguez eta Kepa Aginako.

Amorebieta  
Etxanon  
Zelaieta  
Parkean

**Badaukazu  
aparkalekua.  
Orain zuk  
aukeratu nolakoa.**



Informa zaitez

**94 435 60 90**

**1**

**APARKALEKU  
PUBLIKOA**

Sarrera  
Gudari kalean

Gozatu prezioaz eta erdialdean  
aparkatzearen abantailetaz. Ordu 1= 1€!

**2**

**ALOKAIRUAN**

Plaza-erreserbarekin

**60€** /hlean  
BEZ barne

**3**

**Salmenta prezioa**

**15.475 €**

BEZ gabe



www.altair.com



AMOREBIETA-ETXANONKO UDALA

Informa zaitez, deitu 94 435 60 90/91 telefonora

# HERRIRIK HERRI >

**ELORRIO**

## Aholku Batzordea Plan Nagusiaren osaketatik "baztertu" dutela salatu dute

Batzordeko 11 kideetatik bostek azaldu dute kexa, eta Udalari batzar baterako deia egin diote

**B**ere sasoian Hiri-Antolamendurako Plan Nagusiari buruz iritzia emateko sortu zuten Aholku Batzordeko bost ordezkari haserre agertu dira Plana dagoeneko "alegazioen epean" dagoelako. Kexu dira: "Plana osatzerako orduan orain arte gugaz ez dute kontatu".

Kontseilua 11 kidek osatzen dute, eta horietako bost dira, beste hainbeste herri elkarte edo alderdi politikoren ordezkariak, kexu agertu direnak: Elorrixa ekologiki taldea, Elorrioko Auzokide Elkartuen Koordinakundea, Elo-

rrioko Merkatarien Elkartea, Elorrioko Herritarren Aukera alderdia eta CCOO sindikatua, hain zuzen ere.

"Dagoeneko dokumentua erakusketa publikoan dago eta Aholku Batzordea alboratu egin dutela uste dugu", salatu zuen Xabier Zarandonak, Elorrioko Auzokide Elkartuen Koordinakundeko ordezkariak. Gobernu Taldeak otsailan batuko zirela esan eta "ez dute esandakoa bete".

Horrez gainera, planak ez duela Denon Artean txostena—herri-tarren ekarpenak jasota osatuta-



Alderdi politikoen, CCOO, EHNEK, partikular bik eta hiru herri elkarten osatzen dute batzordea.

ko txostena—errespetatzen deritzote. Horregatik, "beste dokumentu alternatibo bat" lantzeko eskatu dute, "Denon Artean prozesuan jasotako ildoak beteko dituen". Ondoren, alternatiba

hori "herriarrei aurkeztu behar-kolitziaieke, eta Aholku Batzordean ere eztabaidatu behar kolitziateke". Eskaera guztiak jasotzen dituen dokumentuari eman diote sarre-ra Udaletxean dagoeneko.

Niko Moreno alkatearen esanetan, astelehenean, Hirigintza Batzordea batzen denean, "Aholku Batzordeagaz batzea planteatuko dugu, proiektua formalki aurkezteko". ■ J.D.

## Iberdrolatik jasotako fakturretan akatsak daudela salatu dute

laz arte Diselec enpresak banatzen zuen argindarra herriko eremu batean, eta Iberdrolara aldatu zirenetik zerbitzuak "okerrera" egin omen du

Iazko ekainera arte Diselec enpresa banatzailearen bitartez jasotzen zuten argindarra Elorrioko zonalde batean. Kudeaketa Iberdrolaren esku dagoenetik hainbat herritarrek arazoak izan dituzte.

Berriotxo kalean bizi den Itziar Zumarraga "gestino txar" hori izan duenetako bat da. Otsailan jaso du lehenengo faktura azken sei hileetan. Txarto jarri dizkiote hainbat datu (kontu korrentea, izena...), eta ez diote kontadorearen zenbakia zehaztu.

Salatzen duena, batez ere, Iberdrolaren "informazio falta da", herritarrei aldaketaren ondoren azalpenik eman ez izana. Aste honetan bertan bidali diote lehenengo aldaketaren berri ematen duen gutuna; "azalpen batzuk ematen ditu, baina aspaldi egin beharreko kontua zen; gainera, datuak txarto daude berriro".

Hainbat bider deitu du Iberdrolara argibide eske, baina "beti toki batetik bestera bidaltzen nauten, eta azkenean inork ez dit argi-

biderik ematen". Jaurlaritzako arreta zerbitzura deituta antzeko "dei bat baino gehiago" jaso dutela adierazi diote.

**Udalaren parte-hartzea**

Udalak arazoan esku hartu dezan gura du, "kexak batu eta erantzun bateratua emateko", eta horrela jakinarazi dio alkateari. Niko Moreno laguntzeko prest agertu da, baina lehenengo "egoera aztertu behar dugu zehatz ezagutzeko, Udalean ez dakigu eta ezer". ■ J.D.

**OTXANDIO**

## Hamar hektarea atonduko dituzte Mendikurkurren

Abereendako 10 hektareako larrea egingo dute, Udalak Aldundiagaz adostasuna lortuta

Atzo goizean Aldundiko Basoen Saileko arduradun Peli Manterolagaz batzartu ziren Udaleko ordezkariak. Izan ere, bere sasoian Mendikurkurren abereei bideratutako 15 hektareako larrea egitea proposatu zion Udalak. Aldundiak, gehienez, 4,5 hektarea atontzeko baimena eman zuen, eta adostasun batera ailegatzeko asmoz batzartu ziren atzo.

Erdibide batera heldu dira eta, azkenean, 10 hektarea ingu-

ruko larrea egingo dute Mendikurkurren. Zonalde batean pinadia dago, eta eremu hartan larrea mistoa izango da; hau da, Udalak "entresaka handi bat" egingo du Aritz Otxandiano alkatearen arabera, eta, beraz, larrea zein pinua, bietatik egongo da eremu hartan.

Akordioagaz "gustura" dago Udala. Aurrerago larrea handitu gura badute, toki berean handitzeko aukera izan dezakete. ■ J.D.

**JUAN BERISTAIN**  
NEKAZAL TRESTAK

Salmenta eta konponketa

Oidor Berriozabalbeitia, 14 • 48230 Elorrio (Bizkaia) • Tel.-Faxa: 94 623 18 03

HONDA  
STIHL  
SAME  
BCS  
VIKING

PASQUALI

# AGENDA >

> ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Otsailaren 28an, 18:00etan

## ARTEA

Umeei natura zaintzen eta maitatzen erakutsi gura die Granadako La maquina konpainiak antzezlan honetan. Istoria baso batean gertatzen da, eta bertan arte-zuhaitz baten bilakera ikusiko da, hazia erne eta zuhaitz eder bilakatzeraino. Txotxongiloek, eszenografiak eta piano-jotzaile batek zuzenean eskaintzen duen musikaren bitartez ezagutuko dugu istorioa. Maite Arrese izango da euskarazko narratzailea.

## ANTZERKIA

### BERRIZ

- » **Ipuinez ipuin** haur antzerkia, otsailaren 26an, arratsaldeko 17:30ean, Kultur Etxean.
- » **El erizo** komedia dramatiko, otsailaren 28an, Kultur Etxean.

### DURANGO

- » **Artea** haurrentzako antzerkia, otsailaren 28an, arratsaldeko 18:00etan, San Agustinen.

### ELORRIO

- » **Es puto cabaret** antzerki saioa, otsailaren 26an, gaueko 22:00etan, Arriolan.

### ERMUA

- » **Entremeses cotidianos** antzerki saioa, martxoaren 5ean, Lobiano kulturgunean, gaueko 22:15ean. Izarraitz taldearen eskutik
- » **Poesencia** antzerki saioa, otsailaren 26an, gaueko 22:15ean, Lobiano kulturgunean.

- » **Ali baba** haurrentzako antzerki saioa, otsailaren 27an, arratsaldeko 17:00etan, Lobiano kulturgunean.



### ZORNOTZA

- » **Artea** haurrentzako antzerkia, otsailaren 27an, arratsaldeko 20:00etan, Zornotza Aretoan.

## BERTSOAK

### ABADIÑO

- » **Bertso afaria** martxoaren 5ean, Traña Matienako Oregi jatetxean, 21:30ean. Sustrai Colina, Etxahun Lekue eta Amets Arzallus bertsolariak izango dira bertsoetan.



### DURANGO

- » **Durango Platerueneko DF bertsozale eskolaren bigarren zikloa: 2009ko Txapelketa Nagusia aztergai.** Izena emateko epea martxoaren 4ra artekoa da.

### IURRETA

- » **Bertso afaria** otsailaren 27an Montoste elkartearen, gaueko 21:00etan. Jon Maia, Miren Amuriza eta Xabier Amuriza bertsolariak izango dira.

## BESTEAK

### BERRIZ

- » **Berrizko nagusiei zuzendutako bidaia: Marxoaren 11n, El Correo** egunkarira bisita antolatu dute. Goizeko 10:15ean izango da hitzordua Berrizen. Joan gura dutenek, otsailaren 26rako izena eman behar dute, jubilatuen egoitzan.
- » **Eskiatzera Astunera joateko bidaia** antolatu du Berrizko Udalak. Joan gura duenak martxoaren 4ra arte du izena emateko epea Berrizburu kiroldegian.

### IURRETA

- » **Iurreta Txirindulari Elkarteak 75 km-ko ibilbidea** antolatu du 27an, goizeko 10:00etan. Ibilbidea: Iurreta-Autzagana-Gernika-Muruetagan-Laga-Laida-Gernika-Autzagana-Iurreta.

### ZALDIBAR

- » **Gaztelekua**, 12-16 urte bitarteko gazteentzat. Irteera antolatu dute Santamarinazarrera. Arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara Gaztelekuan, martxoaren 5etik 7ra.

- » **Emakumearen astearen barruan antzerki saioa: El pico de las viudas** Sutegei taldearen eskutik. Goizeko 10:00etan Solobarrian.

### ZORNOTZA

- » **Erdi Olgeta, umeentzako aisialdi programa** 6-10 urte bitartekoentzat, otsailaren 27an arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara, Zelaieta Zentroan.

## DEIAK

### DURANGO

- » **Odola emoteko aukera**, eguenero, 16:30etik 21:00etara, Anbulatorio Zaharrea. Mugarra odol-emaile elkarteak deituta.

## ERAKUSKETA

### BERRIZ

- » **"Bizitza minatuak"** Gervasio Sánchez 2009ko Argazki Sari Nazionalaren argazki erakusketa, otsailaren 19tik martxoaren 12ra, Kultur Etxean.

### DURANGO

- » **"La Biblia: Historia de un pueblo que busca su libertad"** erakusketa Aste Santura arte egongo da ikusgai Uribarriko Andra Maria basilikan. Astelehenetik larunbatera, goizez 9:30etik 13:00etara, arratsaldez, 17:00etatik 19:00etara. Domeketan goizez bakarrik.

### ERMUA

- » **Emakumeen aurpegiak** erakusketa, martxoaren 1etik 14ra, Lobiano kulturgunean.

### ZORNOTZA

- » **Katsumi Komagata.** Martxoaren 30era arte, Liburutegian.
- » **Picassoren emakumeak** mosai-koak. Martxoaren 15era arte, Liburutegian.

## HITZALDIAK

### ELORRIO

- » **Emakumeen Mundu Martxak** martxoan Euskal Herria zeharkatuko du. Ekimen hau ezagutu eta parte hartzeko Elorrioko Udaleko Berdintasun Sailak hitzaldia antolatu du martxoaren 3an, arratsaldeko 19:30ean, Iturri kultur etxean.

## IKASTAROAK

### ABADIÑO

- » Matriuska errusiarrak dira **Abadiño-ko Martxoak 8ko lehiaketa irabazi duen kartelaren** ardatza. Sariak



- banatzeko ekitaldia martxoaren 5ean izango da, arratsaldeko 17:30ean, Txanporta kultur etxean. Lehiaketara aurkeztu ziren 14 lanak ikusgai egongo dira kultur etxean, martxoaren 5etik 18ra bitartean.

- » **Antzeppen ikastaroa** Ander Lipusen eskutik, martxoaren 6an, goizeko 10:00etatik gaueko 20:00etara. Bazkaltzeko atsedenaldia 14:00etatik 16:00etara izango da. Muntzaratz auzoan Banarte antzerki taldearen lokaletan egingo dute ikastaroa.

### DURANGO

- » **Zaindu programaren baitan**, Durango adinekoen udal egoitzan: **Alzheimer gaixotasuna eta beste dementzia batzuk**, mintegia martxoaren 3an. Ordu eta erdiko saioak dira. **Taldeko laguntza psikologikoa**, bizipenak elkarbanatzeko, martxoaren 2an. Ordua: 17:30-19:30.

- » **Patinaje ikastaroa**, zapatuetan. 6 eta 15 urte bitartekoentzat, 16:00etatik 17:30etara. Nagusientzat, 17:30etik 19:00etara, Kurutzia Ikastolan. (Informazio gehiago: 94 603 0031)

- » **Euskal dantzen ikastaroa.** Martitzenero, iluntzeko 19:30etik 21:00etara, Plateruena Kafe Antzokian, AIKO taldearen eskutik.

- » **Adinekoentzako denetarikoa ikastaroak: Landare kontserba eta mermelada ikastaroa, adimen emozionala, etxeko kontabilitatea (Excel), argazkiak moldatzeko ikastaroa, landare osasungarriak eta elikadurari buruzko ikastaroa, barreterapia eta adinari buruzko ikastaroa.** Izen-emateak Durango adinekoen udal egoitzan.

- » **Tailerra: Eleberri Beltza.** Apirila bitartean izango dira eskolak.



anboto, durangaldeko astekaria



# Egin zaitez harpidedun

harpidedun egiteko, deitu 94 681 65 58 telefonora edo harpidedun@anboto.org-ra zure izen-abizen eta helbidea bidali

Hamabost egunean behingo maiztasunagaz, Juana Lopez de Muniain-en eskutik. Izena emoteko Liburutegira gerturatu.

**ELORRIO**

» Apirilaren 10etik ekainaren 19ra Elorrioko Udalak antolatutako **dantza ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago**. Izen-emateak Iturri kultur etxean bertan egin behar dira martxoaren 19a baino lehenago. Ikastaroan karibeko dantzak izango dira ikasgai, eta ikastaro honen barruan salsa, bachata, 'rueda de salsa', merenge eta mambo dantzak. Ikastaroak zapatu goizean izango dira, 10:00etatik 12:00etara.



**IPUINAK**

**DURANGO**

» **Haurrentzako ipuin kontaketa**, Txomin Magdalenaren eskutik otsailaren 27an Durangoko Udala Liburutegian. 12:00etan 3-5 urte bitartekoentzat. 12:30ean 6 urtetik gorako haurrentzat.

**ERMUA**

» **Haurrentzako ipuin kontaketa**, martxoaren 6a,n 17:30ean Udala Liburutegian.

**IURRETA**

» **Haurren irakurketa kluba**, otsailaren 26an, Herri Liburutegian. 17:30etik 18:30era, 3-6 urte bitartekoentzat.

» **Helduentzako ipuin-kontalaria**, otsailaren 26an, Herri Liburutegian. 20:00etan 'Mil Amores', Margarita del Mazoren eskutik.

**ZALDIBAR**

» **Haurrentzako ipuin kontaketa**, Estibaliz Gonzalez kontalariaren eskutik, Zaldibarko Liburutegian, otsailaren 26an 17:30ean 3 eta 5 urte arteko umeentzat gurasoekin; 18:00etan 5 eta 9 urte arteko umeentzat.



**ZORNOTZA**

» **Kontu kontetan**, haurren liburutegian, otsailaren 27an, Izaskun Villareal (zornotzarra) & Nora Azpiriren eskutik.

**MUSIKA**

**DURANGO**

» **Kontzertuak Ttipi ttapa tabernan** otsailaren 26an **Antton** gaueko 22:30etik aurrera.

**ERMUA**

» **Ermuan kantuan**, otsailaren 27an, 12:30ean, Orbe Kardenalaren plazatik.

» **Flamenco jaialdia** (Andaluziako eguna), otsailaren 27an, 18:30ean, Andaluziako zentroan.

» **Abesbatzen kontzertua**: Pispillu eta Alboka abesbatzak eta Barakaldoko orfeoia, martxoaren 5ean, gaueko

20:00etan Santiago elizan. Antolatzailea: Alboka eta Pispillu abesbatzak.

**ZINEKLUBA**

**DURANGO**

» **Sherlock Holmes**, martxoaren 4an, 20:30ean, Zugazan

**ERMUA**

» **"Tres días con la familia"** martxoaren 4an 19:00etan eta 21:30ean Lobiano kulturgunean.



Otsailaren 26an, 22:00etan  
**ES-PUTO CABARET**

Kabaret isekari, garratz eta lotsabakoena txobxongilo erraldoien bitartez aurkezten digu El Espejo Negro konpainiak, era horretako antzezlanen nazioarteko konpainia onenatarikoa denak. Es-puto Cabaret showa Marianna Travelok aurkezten du, bertan aldarrikatu eta erakusten ditu bizitza, sexua, erlijio eta politika ulertzeko era desberdinak. Marianna Travelo hainbat pertsonaiaren nahasketa da; Freddy Mercuri eta Lola Flores, esaterako. Barre algara eragiten duen ikuskizuna da, eta batez ere, norbere buruz barre egiteko gonbidapena luzatzen digun showa.

**ZINEMA**

**DURANGO**

Zugaza

**Al límite**

Zuzendaria: *Martin Campbell*  
barikua 26: 19:00/22:00  
zapateria 27: 19:30/22:30  
domeka 28: 19:30/22:30  
astelehena 1: 19:00/22:00  
martitzena 2: 20:00



Umeendako zinema

**Arthur y la venganza de Maltazard**

Zuzendaria: *Luc Besson*  
zapateria 27: 17:00  
domeka 28: 17:00

**ELORRIO**

Arriola antzokia

**Un tipo serio**

Zuzendaria: *Joel & Ethan Coen*  
zapateria 27: 22:30  
domeka 28: 20:00  
astelehena 1: 20:00



Umeendako zinema

**Dos Canguros muy maduros**

Zuzendaria: *Walt Becker*  
domeka 28: 17:00

**ZORNOTZA**

Zornotza aretoa

**Sherlock Holmes**

Zuzendaria: *Guy Ritchie*  
zapateria 27: 22:00  
domeka 28: 20:00  
astelehena 1: 20:00



Umeendako zinema

**Dos canguros muy maduros**

Zuzendaria: *Walter Becker*  
domeka 28: 17:30

**BOTIKAK**

**Barikua, 26**  
09:00-09:00  
• Unamunzaga (Murueta Torre 2C - Durango)  
**Zapateria, 27**  
09:00-09:00  
• Navarro (Artekale 6 - Durango)  
09:00-13:30 (\*14:00)  
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)  
• Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)  
• Balenciaga/ Unamunzaga/ Sagastizabal/ De Diego/ Campillo/ SanRoma  
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)\*  
09:00-22:00  
• Egaña (Bekoetxe 4 - Zaldibar)  
**Domeka, 28**  
09:00-21:00  
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)  
**Astelehena, 1**  
09:00-21:00  
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)  
**Martitzena, 2**  
09:00-09:00  
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)  
**Eguaztena, 3**  
09:00-09:00  
• Campillo (Montebideo 24 - Durango)  
**Eguena, 4**  
09:00-22:00  
• Eguren, Isabel (Torresolo 4 - Abadiño)

**TELEFONO INTERESGARRIAK**

**SOS Deiak**.....112  
**DYA** .....94 620 28 00  
**Gurutze Gorria** ....94 681 09 49  
**Osakidetza** .....94 600 72 00  
**Ertzaintza** .....94 466 93 00  
**Suhiltzaileak** .....112

**GARRAIOAK**

Euskotren .....902 54 32 10  
Durango .....94 681 02 32  
Bizkaibus .....94 448 40 80  
Pesa .....902 10 12 10  
Continental Auto ....945 286 466

**TAXIAK**

Abadiño .....946 814 470  
Matiena .....606 459 988  
Durango Geltokia.....946 811 001  
Goco Tour .....946 202 860  
Tele Taxi .....944 102 121  
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026  
Elorrio Geltokia .....946 820 040  
J.L. Uriarte .....670 402 002  
I. Estebez .....670 678 273  
M Galeano.....946 582 854  
Iurreta .....946 201 565  
Taxi auzunea .....688 618 690

**UDALAK**

Abadiño .....94 621 55 30  
Atxondo .....94 682 10 09  
Berriz .....94 682 45 84  
Durango .....94 603 00 00  
Elorrio .....94 658 27 12  
Garai .....94 681 63 93  
Iurreta .....94 620 12 00  
Izurtza .....94 681 35 48  
Mallabia .....943 17 14 61  
Mañaria .....94 681 89 98  
Otxandio .....945 45 00 20  
Zaldibar .....94 682 70 16

**UDALTZAINGOAK**

Abadiño .....94 621 55 33  
Berriz .....94 682 40 36  
Durango .....94 603 00 10  
Elorrio .....94 682 02 18  
Iurreta .....94 620 08 88

**BESTELAKOAK**

Arriola .....94 658 31 92  
San Agustin .....94 603 00 21  
Zornotza Aretoa .....94 630 01 68  
Gazte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE .....94 620 36 47  
Errota KE .....94 466 94 16  
Gorabide .....94 681 24 35  
Alkoholiko Anonim.94 415 07 51  
Nekazal bulegoa ....94 681 15 20  
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86  
Butanoa (UME).....94 681 08 77  
Araztegia .....94 620 28 00  
Foru Ogasuna.....94 681 07 42  
INEM Durango .....94 681 12 96  
Gizarte Segurantzaz 94 681 49 58  
Epaitegiak.....94 603 00 51

**KIROLDEGIAK**

Igerilekua  
Astola .....94 620 29 29  
Igerilekua  
Atxondo .....94 623 14 38  
Berriz .....94 682 43 74  
Durango  
(Landako).....94 621 51 30  
Durango  
(Tabira) .....94 621 51 50  
Elorrio .....94 682 10 27  
Zaldibar .....94 682 73 74

**EGURALDIA**

**14° BARIKUA** ☁  
Haizea nabarmen baretuko da eguerditik aurrera. Eguna haize-bolada zakarrekin hasiko dugu, baina gainontzeko orduetan ahul-bizi ibiliko da. Zeruan hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira.

**18° ZAPATUA** ☁  
Haizea indartu egingo da eta egunaren bigarren zatian haize-bolada bortitzak espero ditugu; haize-ufada maximoek 100 km/h-ko abiadura gaindituko dute orokorrean. Zeruan hodeiak nagusituko dira.

**18° DOMEKA** ☁

**15° ASTELEHENA** ☁

**16° MARTITZENA** ☁

# Df bertsoZALE

## eskola 2010



## TXAPELKETA NAGUSIA AZTERGAI

**MARTXOAK 4, 20:00, Durangoko Plateruena**  
Andoni Egaña

**MARTXOAK 11, 20:00, Durangoko Plateruena**  
Unai Elizasu eta Maite Berriozabal

**MARTXOAK 17, 20:00, Durangoko Plateruena**  
Agin Rezola eta Iñaki Aurrekoetxea

**MARTXOAK 24, 20:00, Durangoko Plateruena**  
Eider Rodriguez eta Asier Altuna

Izen emotea: 15 euro [kultura@plateruena.net](mailto:kultura@plateruena.net) helbidean.  
Azken eguna, martxoak 2 asteartea



# KIROLAK >



Argazkia: Kepa Aginako

## Aurten ere jaun eta jabe goma gainean

**B**ederatzigarren urtez segidan goma gaineko txapelketako monopolioari eutsi dio Abadiño Sokatira Taldeak. Jokoa izan diren pisu guztietan nagusitu dira: 300, 320, 560, 600, 640 eta 680 kilora artekoetan. Beraz, 36 txapel daramatzate bata bestearen atzetik.

Azkenekoa –560koa– joan zen asteburuan irabazi zuten

Arrigorriagan. Lehenengo jardunaldi bietan alde polita aterata zihoazen, eta hirugarrenean aurretik egindako lana borobildu zuten: "560koa guretzako pisurik gaitzenetakoa da, eta itxaroten genuen baino errazago irabazi dugu", azaldu du Edu Mendizabal entrenatzaileak.

Denboraldia lau tiralari lehiek hasi zuten; pisu txikie-

tan sufritzen dute gehien, baina ofizioa bidelagun, txapel biak jantzi zituzten. Pisu handietan eroso aurkitu ohi dira, eta aurten ere nagusitasunez eskuratu dituzte pisurik astunenetakoa txapelak.

Denboraldia amaitzen den guztietan legez, Mendizabalek ez daki datorren urtera begira tiralari denak izango dituen:

**Atzotik Italian daude, Munduko Txapelketan parte hartzeko**

"Aurten Munduko Txapelketa pizgarri bat izan da denontzat, eta datorren urtean ez da jokatuko. Orain galdetuta batek baino gehiagok ezetz esango luke, baina denboraldi berria hurreratu ahala animatu egiten dira".

### Munduko Txapelketa

Atzotik Munduko Txapelketa jokatzen dabil Abadiño Sokatira Taldea, Italian. Pisu bitan lehiatuko dira: 560 eta 600 kilora artekoetan. Orain urte bi brontzea irabazi zuten 560koan eta urrea 600ekoan.

Atzo urrea irabazi zuten 560 kilotan. 22 tiraldi egin eta denak irabazi zituzten. Amaiur geratu zen bigarren. Finaleko lehen tiraldia lau minutuan irabazi zieten eta bigarrena hiru minutuan. Irlandako Cockil taldea geratu zen hirugarren. ■ J.D.

### 24 Zaldia lehen erregionaleko onena

Zaldibarko taldeak liga irabazi du lehenengo erregionalean. Jokatutako 18 partiduetatik 14 irabazi ditu Zalduek. Anbotopokok eta Tabirakok ere liga txukuna osatu dute.

### 25 Iurretako eta Elorrioren arteko dema

Iurretako eta Elorrio denboraldi bikaina osatzen dabilza. Urduliz ahaltsuaren ondoren, eurak dira mailako onenak; asteburuan elkarren kontra jokatuko dute Larrakozelain.

# Zaldua, Anbotopeko eta Tabirako, igoera fasean

Lehen erregionaleko gure hiru ordezkariak sailkatzea lortu dute



Zalduaren eta Tabirakoren arteko aurtengo derbi biak Zaldibarko taldeak irabazi ditu. A. Dominguez

Joan zen astean Tabirakoren talde nagusia igoera fasea jokatzeko sailkatu zen. Asteon Zornotzak lortu du sailkapena, Baskonia puntu bategatik menderatuta. Baina saskibaloiak behe-ragoko mailetan ere utzi digu zer ospatua. Izan ere, lehenengo erregionaleko gure ordezkari guztiak igoera fasean ibiliko dira; denboraldi bikaina osatuta, Zalduak, Anbotopekok eta Tabirakok onenen multzoan lehiatzeko txartela irabazi dute. Igoera fasea datorren asteburuan hasiko da, eta lehenengoak izango du mailaz igotzeko aukera.

Hiru taldeetan Zaldua ibili da orain arte indartsuen. Jokatutako 18 lehietatik 14 irabazi dituzte, eta lider amaitu dute

euren multzoan. Zoritxarrez, lesionatu askogaz aurre egin beharko diote hurrengo fase erabakiorrari. Pibot titullarrak min dauka tendoiari, eta eba-kuntza egin behar diote; ondorioz, geratzen diren partidu guztiak galduko ditu. Iñigo Gutierrez "Guti"-k hatzamar bat apurtu du, eta hile bitan, gutxienez, taldetik kanpora egongo da.

Horrez gainera, badira guztiz osatu barik jokatzen dabilen hainbat jokalarik ere. Laz bigarren amaitu zuten igoera fasea, baina aurten "errealista izanda, atzerago" ibiliko direla pentsatzen du Jon Vazquez joko antolatzaileak.

Areriorik gogorrenak Romo, Centro Salmantino eta Anbotopeko izango direla deritzo. ■J.D.

Gure ordezkarien artean Zaldua ibili da ondoen; lider amaitu dute euren multzoan

Zalduak lesionatu askogaz aurre egin beharko dio igoera fase erabakiorrari

## DRTk arerio zuzenaren kontra galdu du, eta larri dabil

Promozioa ekiditeko borrokan, Durango Ilarduyak puntuak behar zituen Getxora egindako bisitan, baina galdu egin zuen (24-13). Getxo arerio zuzena zuen, eta sei puntura aldegin diote. Orain Durangoko taldea azken aurreko dago sailkapenean, 13 puntugaz. Eibar dago azkeneko postuan, 11gaz. Universidad de Vigo lau puntura daukate. Hurrengo lehia Barcelona Unibersitari Club taldearen kontra jokatuko dute.

Bestalde, Euskal Ligan DRTk 34-13 irabazi egin zion Elorriori Arripausuetan, eskualdekoen arteko derbian. ■J.D.

## Mendi bizikleta ibilaldia egingo dute etzi, Elorrio inguruetan

Elorrio Txirindulari Elkarteak XI. Mendi Bizikleta Ibilaldia antolatu du domekarako, 10:00etan; plazan hasi eta amaituko da lasterketa. Izena lasterketa hasi baino ordubete lehenago eman behar da herriko plazan. Federatuentzako dohainik da, eta federatu bakoentzat 12 euro, aseguruia izan dezaten.

Hiru ibilbide aurrekisi dituzte. Laburrenean, 16 kilometrokoan, Elorriotik Betsaide-ra igoko dira Arrazolatik pasatuta, eta handik Elorriora jaitsiko dira. 22 kilometrokoan, Betsaidetik Aramaiorantz jaitsi-

ko dira —Aramaiora heldu barik— eta handik Tellamendira igoko dira, ondoren Elorriorako bidea hartzeko. Ibilbiderik luzeenean, 30 kilometrokoan, Aramaiorantz jaitsi ondoren, Zabalaurdi igoko dira, azken txanpari ekin aurretik. Hiru ibilbideetan, azkeneko jaitsiera Udaltxan magaletik egingo dute.

**Janaria eta duxak**  
Antolatzaileek jakinarazi dutenez, amaieran edariak eta janaria banatuko dituzte partehartzaileen artean. Duxak eta bizikletak garbitzeko guneak ere eskainiko dituzte. ■J.D.

Iker Saenz de la Cuesta  
• Areto futbol entrenatzailea



## Federazioaren helburuak

Taldekako kirol bat ofizialki praktikatzeko federazioarekin kontaktuan jarrita konturatzen zara, erraztasunak eman arren, zer inportantea den "money" kontua.

Federazioetan lan egiten duten pertsonak ezin esan gaizki egiten dutenik, baina, urte batzuk mundu honetan sartuta igarota, esan dezaket euren politika askotan okerreko bidetik doala.

Taldeek kristoren ahalegina egiten dute dirua lortu eta kirol maila etengabe hobetzeko, baina askotan ezin diete aurre egin federazioak ipinitako betebeharrari.

Orainsu aipatu genuen taldeek entrenatzaile titulatu izan behar zutela, eta federazioak arau horretan oinarrituz taldeak isunekin zigortuko zituela. Aurten ez da hori izango federaziotik sortarazitako burukomin bakarra, eta orain dela gutxi jakin dugu datorren denboraldirako hogeit urte edo gutxiago daukaten hiru jokalarik derrigorrez izan beharko ditugula taldean, eta arau hau betetzen ez dutenek isuna izango dutela.

Arau hauek normalak lirateke kirol guztietan maila hazteko, baina ez da hain ulergarria ez beteta isunak ekartzea, taldeen biziraupena zailtzen dutelako.

Nire ustez horrelako arauak ezarri behar dira, baina horretarako beste gauza batzuk egin behar dira taldeek federazioarekin norabide berean arraunean egiteko (laguntzak futboleko eskolentzat, entrenatzaile titulua ateratzeko erreztasunak, ...).

Nik argi daukat areto-futbola indartzeko federazioa ezin dela "diru-kutxa" bat izan. Gauzak azpi-azpitik jarri behar dira ondo, ezin dugulako onartu erregionalean taldeak erraz sortzea (arau gutxi bete behar dira), eta gero taldeak kirol maila ona daukanean arauekin erretzea.

Adituarentxokoa

## Harmailak bete egin ziren Haitiren alde

Kulturaleko eta Athleticeko jokalarik ohien arteko lehiak ikusmin handia eragin zuen

Haitin izandako lurrikaran kalte-tutakoei laguntzeko elkartasun partidua jokatu zuten, joan zen domekan, Durangoko Kulturaleko eta Athleticen. Ekimena arrakastatsua izan zen, harmailak ia lepo bete ziren-eta. Guztira, 3.500 bat euro batu zituzten, eta Solidaridad Internacional gobernuz kanpoko erakundeak kudeatuko du dirua.

Emaiza gutxienekoa bada ere, inor ez zen denborapasa zelairatu, eta partidu entrenigarria eskaini zuten. Athleticen 4-1 irabazi zuen, baina Kultura-

lak estu hartu zituen banakoa sartu zuenean. Talde biek zuten dena eman zuten Tabirako berdegunean. Partidua ikusten izan ziren, besteak beste, Jose Angek Iribar eta Carmelo Cedrun atezain ohiak. ■J.D.

Guztira, 3.500 bat euro batu zituzten eta antolatzaileak ontzat jo dute ekimena



Taldeko kapitainak elkarri bostekoa ematen. Web Athletic Club



# Igoera posturako lehian, derbia Elorrio eta lurretakoren artean

Elorriok partidu bakarra galdu du etxean; lurretakok urtebete darama kanpoan galdu barik



Derbi borrokatua eta intentsitate handikoa itxaroten dute Eleizalden. Ana Dominguez

Lehenengo erregionalean talde bi igoko dira goren mailara. Zamudiok ia segurtaturik du igoera, 14 puntuko abantaila duelako. Bigarren posturako borroka lurretako, Elorrio eta Artibairen artekoa dela dirudi. Durangaldeko talde biek puntu kopuru bera daukate, eta bihar derbia jokatuko dute Eleizalden.

**Talde biak bigarren eta hirugarren daude sailkapenean, puntu kopuru beragaz**

Joanekoan lurretakok 1-0 irabazi zuen. Jon Gurutz Vazquez iurretarren entrenatzailearen arabera, "jokoa gehiagotan dominatu eta merezita irabazi genuen". Aitor Roman Elorrioko jokalaria partiduaren beste ikuspegi bat du: "Eurek izandako aukera bakarrean asmatu egin zuten. Guk aukera batzuk

izan genituen, baina ez genuen asmatu". Zenbat buru hainbat aburu futbol kontuetan ere.

Biharko derbiari begira, aurkariaren arabera jokatu beharrean bakoitza bere jokoa egiten ahaleginduko dela adierazi dute talde bietako ordezkariak. Horretarako, taldeak oso-osorik dituzte; baja bakar bat ere ez talde bien partetik.

lurretako arerio beldurgarria da etxetik kanpora. Orain urtebete pasatxo galdu zuten azkenez kanpoan; Askartzaren kontra izan zen (2-1). Aurtengo denboraldian sei partidu irabazi eta lau berdindu dituzte.

**Urtebete da lurretakok etxetik kanpora galdu zuenetik; 2-1 izan zen Askartzaren kontra**

Elorrio indartsu dabil etxean; partidu bakarra galdu dute. Iaz bigarren erregionaletik igo zirela kontuan hartuta, sekulako denboraldia egiten dabilta: "Ez genuen itxaroten hain goian ibiltzerik, baina somatzen genuen gauzak ondo egin ahal genituela", dio Romanek.

Liga amaitzeko 12 partidu falta diren arren, biharko hiru puntuek balio handia daukate. Hala ere, kontuz Artibaigaz; bost puntura dago eta partidu bat jokatzeke du oraindik. ■ J.D.

## Zamudioren kontrako porrota ahaztu eta puntu bila doa Kulturala

Zamudiok merezita eraman zituen hiru puntuak Tabiratik joan zen asteburuan (0-3). Zelai erdian antolatu zuten armiarma sarean nahastu zen Kulturala, eta ezin izan zuten euren ohiko jokorik antolatu.

Gol guztiak geldikako jokaldietan eta bigarren zatian iritsi ziren. Azpimarragarria izan zen hirugarrena; Zamudioko Ager jokalaria eskudratik sartu zuen baloia.

Bihar Elgoibarren kontra jokatuko dute. Elgoibar laugarren dago sailkapenean; play-off postuan, beraz. Kulturala zazpigarren dago puntu bira. ■ J.D.

**Elgoibarren kontra jokatuko du bihar Kulturalak; aurretik du play-off postuan**

## Alpinok iraupen eski ikastaroa antolatu du martxorako

Alpino mendizale taldeak iraupen eski ikastaroa antolatu du martxoaren 6an eta 7an. Izena Alpinok Goienkalen daukan egoitzan eman daiteke, otsailaren 26an eta martxoaren 2an, 20:00etatik 21:00etara; gehienezko ikasle kopurua mugatua da. Bazkideentzako prezioa 60 euro da eta bazkide ez direnentzako 80 euro. Irtezeko ordua martxoaren 6an goizeko 5:00etan ipini dute Landakon, anbulategi ondoan.

Ikastaroaren helburua iraupen eskiko beharrezko oinarriak irakastea da. Eguraldiaren arabera, goizeko edo egun osoko jarduerak izango dira. Egun bietan prozedura bera erabiliko dute ikasleen aurrerapenak eta gurariak kontuan hartuta.

Beharrezko materialaren artean daude iraupen eskirako ekipo osoa (eskiak, makila eta botak), eskularruak, betaurrekoak eta anoraka. ■ J.D.

## Kurutziaga-Mendibeltz lidertza jokoan, derbian

Durangarren arteko derbia jokatuko dute, domekan, Kurutziaga Ikastola Bk eta Mendibeltzek. Mendibeltz lider dago, eta hiru puntura dute etzi aurrez aurre izango duten arerioa.

Talde bien artean Gernikako Lagunak B eta Begoñazpi daude Mendibeltz liderraren-

gandik puntu batera eta bira, hurrenez hurren.

Kurutziagak sei partidu irabazi eta bi galdu ditu etxean orain arte; mailako talderik golegineena da 77 golekin Begoñazpigaz batera. Mendibeltzek sei partidu irabazi ditu kanpoan, eta golik gutxien jaso duen bigarren taldea da. ■ J.D.

### SAILKAPENAK >

#### Futbola / 3. maila / 4. taldea / gizonak

1- Amorebieta.....55	15- Zalla.....32
2- Real Sociedad B...53	16- Eibar.....32
3- Portugalete.....45	17- Aretxabaleta.....30
4- Elgoibar.....44	18- Laudio.....29
5- Zamudio.....43	19- Retuerto.....23
6- Beasain.....42	20- Salvatierra.....9
7- Kulturala.....42	
8- Gernika.....42	
9- Amurrio.....40	
10- Basconia.....38	
11- Arenas.....35	
12- Santurtzi.....34	
13- Leioa.....34	
14- Lagun Onak.....33	

#### Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / gizonak

1- Bidegintza.....13 (+84)
2- Padura.....11 (+5)
3- Zornotza.....10 (+99)
4- Sekyes.....10 (+6)
5- Tabirako.....10 (+48)
6- Baskonia.....9 (+71)
7- San Ignacio.....8 (-16)
8- Easo.....8 (+22)
9- Legarzia.....6 (-157)
10- Bide Bide.....5 (-162)

#### Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / emakumeak

1- Bera Bera ...19 (+324)
2- Gernika .....16 (+255)
3- Ardoi .....16 (+383)
4- Cafés Aitona ...14 (+121)
5- Las Gaunas ...13 (+35)
6- Tabirako .....11 (+146)
7- Deusto Loiola .10 (+38)
8- Elexalde .....10 (-38)
9- Obenasa .....10 (-79)
10- Arabako EHU 8 (-1)
11- Atletico SN 8 (-33)
12- Abaroa 8 (+37)
13- Getxo 7 (-137)
14- Artieda 3 (-216)
15- San Ignacio 2 (-401)
16- Irlandesas 1 (-434)



Durangoko Kulturalak 39 gol sartu eta 32 jaso ditu aurtengo denboraldian

## Agenda

### FUTBOLA

#### OHOREZKO MAILA

##### Berriz - Santutxu

Domekan, 11:30ean,

Berrizburun

#### LEHEN ERREGIONALA

(gizonak)

##### Elorrio - lurretako

Zapatuan, 16:00etan,

Eleizalden

#### BIGARREN ERREGIONALA

(gizonak)

##### Abadiño - Gatika

Zapatuan, 16:00etan, Astolan

#### HIRUGARREN ERREGIONALA

(gizonak)

##### Ezkurdi - Busturia

Zapatuan, 18:00etan,

Arripasuetan

#### LEHENENGO ERREGIONALA

(emakumeak)

##### lurretako - Bizkerre

Domekan, 17:00etan,

Larraozelain

### ARETO FUTBOLA

#### OHOREZKO B MAILA

##### Elorrioko Buskantza - Zarautz

Zapatuan, 18:00etan,

Elorrioko udal kiroldegian

#### EUSKAL LIGA

##### Sasikoa B - Gernika

Domekan, 12:00etan,

Landako kiroldegian

#### LEHENENGO ERREGIONALA

##### Elorrioko Buskantza B - Arabella

Zapatuan, 18:00etan,

Elorrioko udal kiroldegian

##### Abadiño Lagun - Mazusberri

Zapatuan, 17:00etan,

Berrizburun

#### BIGARREN ERREGIONALA

##### Kurutziaga Ikastola B - Mendibeltz

Domekan, 10:30ean,

Landako kiroldegian

#### EMAKUMEEN LIGA

##### Kurutziaga Ikastola - Iraultza

Zapatuan, 16:00etan,

Landako kiroldegian

### SASKIBALOA

#### LEHENENGO MAILA

(emakumeak)

##### Tabirako Baqué - Elexalde

Zapatuan, 19:00etan,

Landako kiroldegian

## AMALURRA &gt;



Mancomunidad de la Merindad  
de Durango  
Durangoko Merinaldearen  
Amankomunazgoa



## 2008an baino 427.680 zabor kilo gutxiago sortu genuen iaz

**Krisiaren eragina zaborrean ere igartzen da, iaz Durangaldean zabor gutxiago sortu genuen**

**Beste materialen kopurua, aldiz, igo egin da; papera, beira, plastikoa, zuntza, hozkailuak eta garbigailuak, esaterako**

Amankomunazgoko herrietako inausteetako adarrekin eta jardinetako belarragaz konposta egingo dute 2011rako

**K**risiak eraginda gutxiago kontsumitzen dugu, eta hori biztanleek sortzen duten zaborrean igartzen dela aipatu du Amankomunazgoko presidente Marian Larraurik; iaz 2008an baino zabor gutxiago sortu da Durangaldean, Amankomunazgoak dituen datuen arabera: 2009an 7.319,310 tona zabor sortu zen Durangaldean, 2008an baino 427.680 kilo gutxiago.

Durangaldean iaz zabor kopurua bajatu zen, eta pila kopurua ere bai. Beste materialen kopurua, aldiz, igo egin da; papera esaterako, iaz 1.292,775 tona batu zituzten; 2008an baino 77.213 kilo gehiago. Beirak ere gorakada izan du, 47.574 kilo gehiago. Plastikoa ere gorako joera du, baina gehien igo dena zuntza da; iaz 493.326 kilo gehiago bildu zen-eta.

Durangoko Garbigunean hozkailu, garbigailu... gehiago jaso zuten iaz 2008an baino. 11.920 kilo gehiago; behar bada, 'Renove Planak' eraginda. Telebistek edo aspiragailuek ere gora egin dute, baina ez hainbeste. Bizkaian sortzen den zaborraren %35 materialki aprobeztatzen da, eta beste %35 energetikoki. Gainerako %30a, berriz, kontrolpeko zabortegietan uzten da.

Bizkaiko Foru Aldundiak, hiri-hondakinen inguruan emandako datuen arabera, Bizkaia, nahiz eta 2000. urtean baino 20.000 biztanle gehiago izan, orain dela hamar urte sortzen zuen hondakin kopuru bera sortzen du. Herritar bakoitzak 40 kilo zabor gutxiago sortu ditu. Bestalde, gero eta zabor gutxiago eramaten da zabortegira.

### Hondakin organikoa

Hemendik aurrera, Bizkaiko Foru Aldundiak jakitera eman duenez, azpiegitura berriak abian jartzeko asmoa daukate, hala nola, Artigasko konpostajefabrika eta tratamendu mekaniko eta biologikorako instalazioa. Beraz, datorren urterako edukiontzi marroia ipintzeko asmoa daukate hondakin organikoa jasotzeko.

Marian Larrauri, Amankomunazgoko presidentek aipatu duenez, Artigasko konpost-fabrika datorren urte hasieran hasiko da Amankomunazgoko herrietako inausteetako adarrak eta jardinetako belarra batzen: "materia organiko horregaz konposta egingo da. Ondoren, konpost hori udaletxei bueltatuko zaie eta lurzorarentzat ongari moduan erabiliko dute".



anboto.iragarkilaburrak.com



- etxea saldu edo alokatu nahi baduzu ostalaritzan lan bila nabil non aurkitu baina?
- mendiak zurituta daude jada, erabiltzen ez duzun materiala duzu etxean?
- liburuak diskoen truke hartu nahi dituen norbaiten bila nabil
- sofa berri duzu eta zaharrarekin ez dakizu zer egin?
- haurra koskortu zaizu eta dagoeneko kotxea ez duzu behar?
- zergatik joan bakarrik lantokira autoa konpartitu dezakezunean?



## Interneten

iragarki guztiak **doan**  
ezer esan ezean 3 hilabetez  
egongo dira zuen iragarkiak

## Paperean

iragarki guztiak **doan**  
ezer esan ezean 6 astez  
egongo dira zuen iragarkiak

Kategoria berriak  
Sare sozialetara loturak  
Abisuak posta elektroniko eta SMS bidez  
Bilatzaile garatuak  
...

# anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

4 DENETARIK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIOAK

6 HARREMANAK

Saldu / Erosi  
Errentan eman / Errentan hartu  
Lan eskariak / Lan eskaintzak  
Galdu / Aurkitu  
Eman / Hartu

Eguazteneko 19:00ak arte  
jasotako iragarkiak bariku  
horretako alean  
argitaratuko ditugu.  
Beranduago jasotakoak  
hurrengo alean.

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

**Interneten eta paperean, doan:** Erregistratu zaituzte, [www.anboto.iragarkilaburrak.com](http://www.anboto.iragarkilaburrak.com) webgunean eta jarri zure iragarkia edo bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org).  
Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23  
**Paperean, ordainduta:** Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

**Iragarkiak sare sozialetan zuzenean argitaratzeko eta erabiltzaileak SMS abisua jaso-  
tzeko aukera ematen du.**

### Higiezinak

#### ETXEBIZITZAK

SALDU

**Abadiño.** Sukaldea, egongela, komuna, 3 logela, trastelekua (komuna ateratzeko aukera dauka) eta ganbara. Eguzkitsua da eta 3 balkoi ditu. Igogaillua jartzeko dago. Berogailua eta leiho berriak dauzka. Etxe guztiak kanpora ematen du.

**Abadiño.** Etxebizitza salgai Muntsaratz auzoan. 3 logela, egongela handia, 2 komun, sukaldea, trasteleku txiki bi etxean eta ganbara. Berriztatua. Altxariek, nahi izanez gero. Lokal komertziala aukeran (kotxe birezkatu leku).  
Telefonoa: 667 882 338

**Durango.** Pisu bat salgai Madalena auzoan. Guztiz berriztatua, duela 5 urte. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Oso eguzkitsua. Guztiz jantzia.  
Telefonoa: 655 709 659

**Elorrio.** Pisu ederra salgai.  
Telefonoa: 639 020 581

**Elorrio.** Pisu eder bat salgai. Auzoa etorbidean.  
Telefonoa: 639 020 581

**Garai.** Garaiko San Migel auzoan. Oarerdikoa, 6. Hegoaldera begira. 10.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila, nahiko laua.

**Otxandio.** Pisu salgai. Ikuspegi zoragarria Anboto aldera. 90m<sup>2</sup> erabilgarri. 4 logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua eta balkoia. Tasatutako prezioan.  
Telefonoa: 675 905 227

**Zaldibar.** Pisu salgai 75m<sup>2</sup>. 3 gela, egongela eta ganbara. Prezioa: 170.000 euro.  
Telefonoa: 655 739 792

#### ERRENTAN EMAN

**Atxondo.** Pisu alokagai Atxondon.  
Telefonoa: 659 842 171

**Elorrio.** Baserri bateko etxe berriztatua alokagai. Estreinatuko. 3 logela, egongela, sukaldea, jangela, komuna eta atarteak. 150 m<sup>2</sup> solairu bakarrean.  
Telefonoa: 699 846 219

#### PISUA KONPARTITU

PISU BILA

**Durango.** Konpartitzeko pisu bila nabil Durango

inguruan.  
Telefonoa: 691 354 031

#### PISUKIDE BILA

**Abadiño.** Abadiño. Pisu konpartitzeko pertsona behar da.  
Telefonoa: 653 017 224

**Durango.** Durango. Zonalde onean kokatutako pisua osotzeko pertsona behar da.  
Telefonoa: 695 780 944

#### LOKALAK

#### ERRENTAN EMAN

**Durango.** Bulego bat alokagai Plateruen plazan. 37 m<sup>2</sup> ditu, eta jantzita dago. Dena prestatuta. Gela handi bat eta beste bi normalak. 750 euro hilean.  
Telefonoa: 656 780 215

**Durango.** Durango. Garaie itxia salgai, Alde Zaharretik gertu.  
Telefonoa: 665 729 936

**Iurreta.** Lonja bat alokagaitzen dut lurretan, Maspe Kalean. 60 metro karratu ditu.  
Telefonoa: 696 63 78 12 (Miren)

#### GARAJE/TRAS-TEROAK

#### ERRENTAN HARTU

**Durango.** Garaie itxia alokatu nahi dugu J.M. Ipa-

rragirre kalearen inguruan.  
Telefonoa: 653018829

#### LURSAILAK

SALDU

**Zaldibar.** 5.000 metro koadroko lur saila salgai. Zaldibarren Gazaga auzoan.  
Telefonoa: 639 772 436

#### GAINERAKOAK

#### ERRENTAN EMAN

**Durango.** Gela bat alokagai Durango.  
Telefonoa: 630 76 18 28

#### Lana/negozioak

#### LAN ESKARIAK

#### OSTALARITZA

**Abadiño.** Matienan tabernaria behar da jornada erdirako. Esperientzia dauka, hobeto.  
Telefonoa: 94 620 37 62

#### IRAKASKUNTZA

**Durango.** 4. mailako Telekomunikazio Ingenieritzako ikasle euskalduna Batxilergoko eta DBHko klaseak Durango emateko prest. Espezialitatea matematika klaseetan.

#### GAINERAKOAK

**Durango.** 22 urteko neska umeak zaintzeko, egunean zehar eta aste osoan

zehar, eskaintzen da. Euskara maila ona daukat. Interesdunak mesedez kontaktuan jarri.

**Durango.** Ileapaintzailea behar da Durango.  
Telefonoa: 94 621 64 91

**Durango.** Durangaldeko denda batean lan egiteko saltzailea behar da. Lanaldi osoan eta berehala hasteko. Interesatuak bidali curriculuma helbide honetara: [curriculum.selek@hotmail.com](mailto:curriculum.selek@hotmail.com)

**Durango.** Esperientziadun ile-apaintzailea behar da Durango.  
Telefonoa: 650 847 466

**Durango.** Merkataritzako agentea behar da bezerrak lortu eta harremanetarako. Derrigorra da esperientzia izatea komertzial moduan, eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 128. SARTU.  
Telefonoa: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

**Durango.** Psikologo pedagogikoa behar da erakunde bateko formakuntza beharrezko diagnostikoa egiteko. Beharrezkoa: gutxienez urtebeteko esperientzia izatea formakuntza pla-

nak egiten eta formakuntza beharrezkoan analisia egiten; Psikologia, Psiko-pedagogia, Pedagogia, Soziologia... ikasketak izatea eta Durangaldean bizitzea. Baloratuko da: Euskara jakitea. Erreferentzia: 948. SARTU.  
Telefonoa: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

#### LAN ESKAINTZAK

#### ETXKO LANAK

**Durango.** Neska euskalduna astean zehar garbiketara lanak egiteko prest; etxeak, tabernak... garbitzeko. Kotxea daukat.  
Telefonoa: 664 146 904 edo 647 242 301

**Durango.** Neska euskalduna Durangaldean lan egiteko prest; umeak zaintzen, dendan...  
Telefonoa: 649 274 543 (Nagore)

**Elorrio.** Elorrioko neska euskaldun eta ardura-tsua, goizetan 11:00etara bitartean umeak eskolara eramanez edo zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Esperientzia handikoa.  
Telefonoa: 645 723 401

#### PERTSONAK ZAINDU

**Durango.** Emakume bat, interna moduan, egun

osoz edo egun erdiz etxeko lanak egin eta gaixoak zaintzeko prest. Interesatuak deitu.  
Telefonoa: 635 757 671

**Durango.** Emakume nagusia pertsona edade-tuak zaintzeko prest.  
Telefonoa: 699 745 723 (Ines)

**Durango.** Haur Hezkuntza ikasten ari den neska euskaldun gaztea umeak zaintzeko prest (kotxea daukat)  
Telefonoa: 626 196 885

#### IRAKASKUNTZA

**Elorrio.** Elorrio. Ekonomia lizentziaduna eta 8 urteko esperientziadun neska euskaldunak klase partikularrak ematen ditu: DBH, Batxilergoa, LH...  
Telefonoa: 616 802 932 (Oihane)

#### GAINERAKOAK

**Abadiño.** Matienako mutil euskalduna goizetan (nahi den ordutik 11:00ak arte) umeak eskolara eramanez edo tabernaren batean lan egiteko prest.:  
Telefonoa: 629 551 587

**Durango.** Saltzailea behar da Durangaldeko denda batean lan egiteko. Lanaldi osoa. Berehala hasteko. Interesatuak bidali curriculuma helbide honetara: [curriculum.selek@hotmail.com](mailto:curriculum.selek@hotmail.com)

**Durango.** Biotxe Durango biolontxelo eta biolin bikotea: errepertorio zabala dugu aukeran ezkontza, inaugurazio eta ekitaldiak girotzeko. Euskadi osoan zehar mugitu gaitzake. e-posta: [biotxe@hotmail.com](mailto:biotxe@hotmail.com)  
Telefonoa: 635 746 176 (Maialen)

**Elorrio.** Haur Hezkuntza ikasten ari den 20 urteko Elorrioko neska euskalduna arratsaldeetan umeak zaintzeko prest.  
Telefonoa: 615 715 878

#### Denetarik

#### SALDU/EROSI

Txakurkumeak salgai.

Euskal artzai txakurkumeak daude salgai. 2 hilabete betetzeko dauzka. Interesatuak egonez gero deitu telefono zenbaki honetara: 645 709 138 (Enrike)

**Tintin-en Urre beltzaren lurraldean** komikia erosi nuke. Bilduma osatzeko falta zaidan ale bakarra da. Komikia euskerazkoa izan behar du. Telefonoa: 625 921 057

**Bertoko garagardoaren txapa.** Kolekzioko Euskal Herriko txapen bilduma betetzeko dagoeneko desagertutako Bertoko garagardoaren txapak falta zaizkit.  
Telefonoa: 695 452 194

**Garagardo txapen kolekzioko trukaketarako prest.** Edozein garagardotako txapak aldatu nahi badituzu deitu eta trukatu ditugu.  
Telefonoa: 695 452 194

#### GAINERAKOAK

**Karabanak gordetzeko zerbitzua.** Atxondo. Karabanak gordetzeko zerbitzua. 900 m<sup>2</sup>-ko lokala.  
Telefonoa: 618 608 908

#### Harremanak

#### GAINERAKOAK

**Txoko bat sortzeko jendea behar da Durango.** Mendizabal auzunean txoko bat sortzeko jendea behar da. Oso interesgarria. Interesatuak deitu hona: Telefonoa: 605 711 331 edo 630 839 325

#### Ingelesa praktikatzeko lagun baten bila.

Durangaldea. Durangaldean bizi eta ingelesa ondo berba egiten duen norbaiten bila nabil. Ingelesa bazara ordainketan euskera praktikatzeko aukera ematen dizut.  
Telefonoa: 625 921 057

#### Familia/etxea

#### ETXERAKO TRESNAK/ALTZARIAK


SALDU

**Ohe artikulatua.** Ohe artikulatua salgai, orain dela hiru hilabete erosi-

saltzeko, erosteko, alokatzeko, bilatzeko, oparitzeko...

# anboto.iragarkilaburrak.com

euskarazko iragarkilaburren ataria



## Interneten

iragarki guztiak doan

## Paperean

ostiralean atal honetan doan



# anboto.iragarkilaburrak.com

koa. Egoera onean.  
Mugikorra: 639 957 569

## HAURRAK

### SALDU

**Bikientzako aulkia.** Bikientzako McLaren markako aulkia. 2007an erositako. Telefonoa: 655 742 241

**Haurrak eramateko kanguroa.** Bular aldean haurrak eramateko kanguroa.

Telefonoa: 655 742 241

**Haurrentzako eskailere-tarako segurtasun barrea.** Hainbat luzeratarakoa. Telefonoa: 655 742 241

**Haurrentzako moises antzeko sehaska.** Leander markakoa, hiru hankakoa. 2007an erositakoa eta 9 hilabetetan bakarrik erabilia, egoera ezin hobean. Koltxoia, hiru han-

Leku hau zure iragarkiaren zain dago

kakoa eta beloa barne, izararik ez. Telefonoa: 655 742 241

**Haurrentzako ohea eta sehaska.** Ikea-ko Diktad haurrentzako sehaska-ohea. 70x140 zm. Koltxoia bi altueratan ipintzeko aukera du. Latexeko Ikea-kos ez den koltxoia barne. Telefonoa: 655 742 241

## Teknologia

### EROSI

**Compact Disk-en erreproduktore portatila** erosiko nuke. Egoera onean egotea eskertuko nuke. Telefonoa: 625 921 057

## Motorra

### SALDU

**Ford Escort turbodiesela salgai.** Balazta berriekin eta martxan jartzeko berogailu berriekin. Amorti-

quadreak ere berriak. IAT pasatu berri. 154.000 km. 2.100 euro. Erabilgarri dago eta egoera onean. Telefonoa: 94 621 82 57

## Nissan Micra salgai.

Egoera onean eta oso merke. 950 euro. Telefonoa: 610 415 511

**Peugeot 3071.6. gasolina salgai.** 2005eko azarokoa, 36.000 km. IAT

2011 arte. Klimatizagailuekin eta oso egoera onean. Garajea gordetako. 8.000 euro. Telefonoa: 677 333 167 (Iratxe)

## Aisia/Kirolak

### GAINERAKOAK

**Biodantza ikastaroa.** Biodantza ikastaroa eskaintzen dut barikuetan Elorrioko Lourdes ikastetxean. 626 661 292

# INMOBILIARIAK

## Amboto

San Agustinalde, 4 - 1 ESK. DURANGO  
TE: 94 681 35 62. email: amboto@eskabot.net

### ETXEBIZITZA SALGAI

#### BERRIZ

• Logela, sukalde "amerikarra", egongela eta komuna. Berria estreinatzeko. 96.000 €.

#### DURANGO

- Erdialdea: Apartamentu berriak. Logela bat edo bikoak, sukalde jantzia eta horma-armairuekin. 150.000 €-tik hasita. Lehen mailako materialak. %100eko finantzaketa.
- Apartamentu berriak eraikitzen. 700 € hilero.
- Jose Maria Iparragirre: 3 logela, sukalde despentsarekin, egongela eta 2 komun. Gas naturaleko berogailua eta igogailua. Aukera paregabea.
- Askatasun Etorbidea: Eraiki berriak. 2, 3, 4 eta logela bakarrekoak.
- Alluitz: 3 logela, 2 komun, sukalde balkoiarekin, egongela eta terraza. Garaje itxia. Estreinatzeko. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Tabira: 3 logela, egongela, sukalde eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea.
- San Ignazio: 3 logela, sukalde, jangela, despentsa, egongela eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea.
- Durango: 3 logela, sukalde, egongela, jangela eta 2 komun. Garajea aukeran.
- Fray Juan de Zumarraga: 4 logela, egongela balkoiarekin, sukalde terrazarekin eta 2 komun. Orientazio ona.
- Murueta Torre: 3 logela, 2 komun, sukalde eskegitokiarekin eta egongela terrazarekin. Ganbara, trastelekua eta garajea. Prezio interesgarria.
- Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
- Durango: Eraiki berria. 2 logela, 2 komun, sukalde eskegitokiarekin, egongela eta garaje itxia. Lehen mailako materialak.
- Tabira: Eraikuntza berria. Logela bakarreko apartamentua. Sukalde jantokia, komuna eta eskegitokia.
- San Inazio Auzunea: Berriztatuta berria. 3 logela, (logela printzipala komuna eta jantzigelarekin), 2 komun, sukalde eta egongela balkoiarekin. Aire girotua. Ganbara eta garajea.
- Pedro Pablo Astarloa: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea.
- San Fausto: 3 logela, sukalde, egongela eta komuna. Prezio interesgarria.
- Intxaurrondo: Apartamentua. Logela, komuna, sukalde-egongela jantokia, eskegitokia eta trastelekua.
- Barrenkale: AZKENEKO DUPLEXA. Eraiki berriak.
- Herriko Gudarien kalea: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 2 terraza eta garaje itxia.
- Astarloa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukalde, eta komuna. Ganbara.

#### IURRETA

• 2 logela, komuna, sukalde eta egongela balkoiarekin. Igogailua. Gas naturaleko berogailua.

## FU AGENCIA INMOBILIARIA

**Fernando Uribe**  
Barrenkalea, 15 - bajo - Tel. y Fax: 94 681 64 23  
48200 DURANGO / Bizkaia

### ETXEBIZITZA BERRIAK

- Zaldibar: Etxebizitzak eraikitzen. Salgai.
- Abadiño: Txalet bifamiliarra lur eremuarekin.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin.
- Errentxu: Adosatua eraikitzen. Salgai.
- Otxandion: Adosatua. Eraikuntza berriak.

### ETXEBIZITZA SALGAI

- Komentu kalea: Halla, sukalde, egongela-jangela, 4 logela eta komuna. Ganbara.
- Laubideta: Halla, sukalde-jantokia, egongela, 2 logela eta komuna. Terraza.
- Monago Torren: Halla, egongela-jangela, sukalde-jantokia, 3 logela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- Montebideo: Halla, egongela-jangela, sukalde, 5 logela eta 3 komun. Terraza. Ganbara. 150 m2.
- Murueta Torre: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara.
- Plateruen Plaza: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 3 komun. Garajea eta trastelekua.
- San Ignazio Auzunea: Halla, sukalde, egongela-jangela, 3 logela eta 1/2 komun. Balkoia. Garajea aukeran eta trastelekua.
- San Agustinalde: Apartamentu berriak salgai.
- San Fausto: Halla, sukalde-jantokia, 2 logela eta komuna.
- Txibitena: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia eskegitokiarekin, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Erdi jantzia.
- Untzillaitz: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. Erdi jantzia.
- Urkiaga-Torre kalea: Halla, sukalde, egongela, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Abadiño: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. 2 garaje. Jantzia.
- Abadiño-Matiena: Halla, sukalde, egongela, 2 logela eta komuna. Ganbara.
- Abadiño: 3 solairutako etxebizitza berriztatuzko.
- Abadiño- Muntzaratz: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara. Igogailua. Oso egoera onean dagoen etxebizitza. Eguzkitsua.
- Abadiño-Muntzaratz: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara. Berria oso egoera onean.
- Bedia: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Berriztatuzko.
- Berriz: Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. Balkoia. Jantzia. Garajea eta trastelekua.
- Berriz: Duplexa. Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Erdi jantzia. Garaje itxia eta Trastelekua.
- Berriz: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Ganbara. Eguzkitsua eta etxe osoak kanpora ematen du.

## ISD Inmobiliaria del Duranguesado

Askatasun etorbidea, 10 48200 DURANGO  
Tel./Faxa: 94 681 66 66 inmoduranguesado@gmail.com  
www.inmoduranguesado.com

### ETXEBIZITZA SALGAI

- Askatasun Etorbidean: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
- Logela bakarra garajea eta trastelekuarekin 200.000 + BEZ
- 2 logela garajea eta trastelekuarekin 233.000 + BEZ
- 3 logela garajea eta trastelekuarekin 350.000 + BEZ
- Tabira: Logela bakarreko apartamentuak. Ganbararekin.
- Pagasarri kalea: Azkeneko 3 etxebizitza salgai. Eraiki berriak. 2 eta 3 logela. Garaje itxia.
- Abadiño: 2 logela. Garajea, trastelekua eta ganbara.
- Zaldibar: Aukera. 3 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berogailua. Balkoia. Garajea.
- Zaldibar: Lursaila salgai eraikitzeko aukerarekin.
- Atxondo: Unifamiliarra salgai. 4000 m2-ko lursaila.
- Abadiño: Bifamiliarrak: 250 m2. 400 m2-ko lursaila.
- Durango: Adosatua salgai. 250 m2. 60 m2-ko lursaila.
- Elorri: Adosatua salgai. 240 m2. Ortu eta lorategia.
- Durangaldea: Txaletak eta baserriak zonalde ezberdinetan salgai edo alokairuan.
- Durango: Garajeak eta garaje itxiak salgai edo alokairuan. Zonalde ezberdinetan.
- Ezkurdi: 130 m2. 4 logela. Garajea. Handia. Orientazio ona.
- Askatasun Etorbidea: 123 m2. 4 logela. Garajea, trastelekua eta ganbara. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- Fray Juan de Zumarraga: 108 m2. 4 logela. Altuera ona. Garajea.
- Murueta Torre: 120 m2. 4 logela. Garajea eta trastelekua. Balkoia.
- Juan de Itziar: 4 logela, egongela, sukalde eta komuna. Bizitzaren sartzeko moduan.
- Herriko Gudarien kalea: 105 m2. 3 logela. Garaje itxia. Balkoi handia.
- Monago Torre: 130 m2. 3 logela. Garajea, trastelekua eta ganbara.
- Ermodo: Erdi berria. 90 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Balkoia.
- Askatasun Etorbidea: Duplexa. 110 m2. 3 logela. Garajea eta trastelekua.
- Murueta Torre: 90 m2. 3 logela. Garajea eta trastelekua.
- San Ignazio: 104 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- Pagasarri kalea: 94 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Antso Eztegi: 97 m2. 3 logela. Ganbara. Berriztatuta.
- San Franzisko: 75 m2. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. 2 balkoi.
- Astepe: 3 logela. Garajea eta trastelekua. Etxe osoak kanpora ematen du. Guztiz beriztatuta.
- Mendizabal: 108 m2. 3 logela, egongela eta sukalde. Garaje itxia 2 kotxerentzako eta ganbara.

## ETXETXO

G. INMOBILIARIA  
Bilgogin, 11. 48100 DURANGO • Tel: 94 681 40 48 • DURANGO • etxetxo@hotmail.com

### ERAIKUNTZA BERRIAK

- Zaldibarren: 2, 3 eta logela bakarreko etxebizitzak. Etxebizitzak garajearekin eta trastelekuarekin. Guztiz jantziak. 138.000 €-tik aurrera.
- Tabira: Berriak. Berehalako banaketa. 192.000 €.
- Iurreta: Maspe: ERAIKUNTZA BERRIA. 2, 3, 4, eta logela bakarrekoak.
- Durango: ETXEBIZITZA BERRIAK SALGAI. Terrazarekin. 1, 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak.


### ETXEBIZITZA SALGAI

- Mikeldi: Erdi berria. 75 m2. 2 logela eta 2 komun. Garajea.
- Ermodo: 3 logela. Igogailua. 210.000 €.
- Landako: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. 2 balkoi.
- Fray Juan de Zumarraga: Berria. 60 m2. Ganbara. Eguzkitsua.
- Askatasun Etorbidea- Oniturri: 77 m2. 2 logela eta egongela. Ganbara.
- Durango: Bizitzaren sartzeko moduan. 2 logela eta egongela. 156.300 € (26 mill. ).
- Durango: 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Berogailua. Terraza. Trastelekua. 169.950 €.
- Franzisko Ibarra: 90 m2. Eraikuntza berria. Ganbara eta garajea.
- Montebideo: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta 2 garaje, bata itxia.
- Errentxu: 85 m2. 3 logela. Ganbara.
- Plateruen Plaza: 75 m2. 2 logela. Trastelekua eta garajea. Terrazarekin.
- Andra Mari: Apartamentua. Guztiz jantzia. 162.000 €.
- San Fausto: 2. solairua. 143.000 €.
- Madalena: 90 m2. 3 logela. Eguzkitsua.
- Askatasun Etorbidea: 3 logela eta 2 komun. Ganbara. Terraza. 279.500 €.
- San Ignazio: 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- Ermodo: 100 m2. 3 logela eta 2 komun. Garajea.
- Astxiki kalean: Estreinatzeko. 2 logela. Terraza. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua.
- Pinondon ( Tabira ): 3 logela eta 3 komun. 2 terraza.
- Tabira / Arriluzea: Duplexa. Erdi berria. Garajea.
- Tabira: Apartamentua. 60 m2. Terraza. Ganbara.
- Plateruen Plaza: Berria. Atikoa. Terraza. 2 logela.
- Artzetagan kalean: Apartamentu berria garajea eta trastelekuarekin. Bizitzaren sartzeko moduan.
- Mendizabalen: 2 logela eta 2 komun. Garaje itxia eta ganbara. Erdi berria.

**BISITATU GAITZAZU BULEGO BERRIAN, SAIBIGAIN 1, ( Fray Juan de Zumarraga kaletik sarrera ).**

# DENPORAPASAK >

**HITZ GEZIDUNAK >**

	Belarri a-paingarriak	▼	Buruko gaitza	▼	Gona
	Lan handiarekin		Txarrantxa		
		▶		▼	
	Zelaia	▶			
	Ipar EH-n, zaratak				
Edukiko genituzke	▼	Mea materia gogor	▶	▼	
* IRUDIAN		Makila, zutoin			
▶		▼			
Arrastaka, herrestan	▶				Presaz
Fruitu mota					
▶				Internet Protokoloa	▶
				Ikasten dihardu	▼
Udako bisitari	▶				
Merkatuak					
▶					Bokala
					Ote ar
Errep., gorotza	▶		Erabateko nahasmen	▶	▼
Musika nota			Jardun		
▶		Italiako harana	▶	▼	
		Zintzo			
Koruari dagokionak	▶	▼			
Senidetasa					
▶					

**SUDOKU >**

**1**

	6	2		1		4	
	3			8	2		9
				7	9	2	1
	1	6					2
7			2	3	4		5
	5					3	7
8	9						5
5			1	9	6	4	8
			5	4		7	

**2**

4			3				1
		3	7		4	8	
		1				3	
	8	4		5	3	7	6
	5			6		8	
			7	8			
7						6	5
5		9	2				
1				7			

1	4	8	6	7	5	9	2	3
2	3	5	1	2	7	4	8	6
3	7	2	9	4	1	6	5	8
4	9	1	3	8	5	7	2	4
5	2	6	4	3	8	1	7	5
6	8	4	1	2	3	5	7	9
7	5	3	7	6	8	1	2	4
8	1	2	5	3	7	6	4	8
9	6	8	4	1	2	3	5	7

**2**

6	2	1	5	4	8	7	9	3
8	9	4	7	2	3	6	1	5
5	7	3	1	9	6	4	8	2
2	4	5	9	6	1	3	7	8
7	8	2	3	4	1	5	6	9
3	1	6	8	5	7	9	2	4
4	5	8	6	7	9	2	3	1
1	3	7	4	8	2	5	6	9
9	6	2	3	1	5	8	4	7

**3**

V	R	E	K	I	N	E	S
K	V	A	L	A	R	O	K
A	S	T	A	V	O	A	L
S	O	K	A	V	K	A	V
E	K	A	K	O	Z	A	V
I	P	I	O	I	O	M	E
S	R	A	R	A	N	A	R
A	O	A	R	D	O	A	G
I	R	R	I	H	A	R	I
A	U	A	L	A	L	A	N
Z	E	K	E	N	E	B	N

**HOROSKOPOA >**

**Aries**  
marxoak 21 - apirilak 20  
Hobe duzu gauzak apurka-apurka egiten badituzu. Ez utzi dena azkeneko momenturako, gero asko estutzen zara-eta!

**Taurus**  
apirilak 21 - maiatzak 20  
Azken aspaldian ez zabilta oso lagunkoi, zure baitan murgilduta zaude. Zu ez zara horrelakoa!

**Gemini**  
maiatzak 21 - ekainak 20  
Bada garaia egoerari buelta emateko, zirt edo zart egin behar duzu, ezin duzu duda-mudatan ibili. Urteak pasatu egiten dira!

**Cancer**  
ekainak 21 - uztailak 20  
Orain bizi duzun egoera ez duzu gustuko, baina zeuk sortutakoa da, beraz, zuk beste inork ezin du konponbidea topatu.

**Leo**  
uztailak 21 - abuztuak 23  
Bikotekidea bilatzeko asmotan zabilta, baina gogoratu ez dagoela perfektiorik. Zu zeu ere ez zara perfektua.

**Virgo**  
abuztuak 24 - irailak 23  
Proiektu asko dauzkazu buruan, baten bati ekiteko momentu egokia da, ilusioz eta gogotsu zaudelako. Hasi, bada, lanean!

**Libra**  
irailak 24 - urriak 23  
Liderra zarella pentsatzen duzu lagunartean, etxean, lanean... Munduak, baina, ez du zure inguruan bira egiten.

**Scorpius**  
urriak 24 - azaroak 23  
Berealduna zara, bategaz zein besteagaz beti daukazu zer edo zer kontatzeko. Ondo pasatzen dute zurekin, baina besteei ere entzun!

**Sagittarius**  
azaroak 24 - abenduak 23  
Aste honetan motibatuago sentitu zara, gauzak egiteko gogo handiagoagaz. Asteburuan ere aprobetxatu eta gauza desberdinak egin!

**Capricornus**  
abenduak 24 - urtarrilak 20  
Noiz arte egongo zara zain? Inor ez da zure bila joango, zeuk mugitu behar duzu, bestela ez duzu zer eginik. Izan aktiboago!

**Aquarius**  
urtarrilak 21 - otsailak 18  
Egun hauetan urtebetetzea, dela-eta, animatuago zabilta. Lagunekin eta familiagaz ondo pasatzeko momentua da!


**Piscis**  
otsailak 19 - martxoak 20  
Lagunekin ondo pasatzen duzu. Azkenean heldu da hainbeste itxaroten zenuen asteburua!

**ZORION AGURRAK >**

agurrak: zorionak@anboto.org-ra Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta



**Iraia Briñas Garcia** martitzenean, otsailaren 23an, jaio zen. Ondoetorri Iraia eta besarkada handi-handi bat aitaxo, amatxo eta Markelen partez.



**Urko Colladok** bihar 9 urte egingo ditu. Ondo pasatu eguna eta ia opari asko jasotzen dituzun. Zorionak izeko ainara eta osaba Enekoren partez.



Zorionak wapa! Gurasoen eta bereziki zure ahizparen partez. Horrelakoa zarelako eta zu barik bizitza ez litzatekelako berdina izango. Oso ondo pasatu!



**Amaia Gorostizaren** urtebetetzea izan zen atzo. la noiz elkartzen garen denok parranda on bat egiteko. Zorionak! Happy birthday!



**Marekek domekan** 8 urte egingo dituen aren, gaur ospatuko du lagunekin txokolatadan. Bazatoz domekan oparia jasotzera? Iurretako familia.



Otsailaren azkeneko egunean **Mirarik** 14 urte egingo ditu. Ondo pasatu, neskatila! Mosu handi bat familia eta lagun guztion partez.



**Jonen urteguna** izan zen otsailaren 23an, martitzenean. Zorionak potxolo, eta mosu handi-handi bat familia osoaren partez.



Lehengusina **Ainhize Arresak** gaur 7 urte egingo ditu. Familiagaz ospatzeko bihar pastela egingo dugu. Zorionak eta txokolatezko musu erraldoiak, Malenen partez

Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien artean tarta bat zotz egingo dogu. Horretarako beharrezkoa da bialdutako mezuagaz batera telefono zenbakia emotea.

Zorionak **Jasoneri**. Aste honetan zotz egin dogun tarta zeuri egokitu jatzu. Oparia eskuratzeko txartela gura dozunean jaso zeinke.





## Eusko Labela duen **Esne Bildotsa**

Eusko Labela duen benetako Esne Bildotsa bere amaren esneaz soil-soilik elikatu da eta 3 eta 5 aste bitartekoa denean hiltzen da, eta horri esker haragi samur eta zapora goxokoa du.



Eusko Labela duen benetako Esne Bildotsak 4 etiketa ditu, laurden bakoitzean bat, eta horietan honakoa adierazten da: hiltzea, noiz hil duten, kontrol-zenbakia eta Eusko Labelaren bermia.



Sartu web orrialdean, eta informa zaitez sustapenari buruz



Zu zaintzeko zaindua

[www.euskolabel.net](http://www.euskolabel.net)

## Eusko Labela: ona den seinale



Baimendutako harategia  
**Euskal Okela**  
Certificada autorizada

Euskal Okela inguruko harategi hauetan aurkituko duzu

- |  |  |
|--|--|
| <p><b>Abadiño</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• PINILLA HARATEGIA TRAIÑABARREN, 29-MATIENA</li> </ul> <p><b>Zaldibar</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• GALLASTEGI HARATEGIA ZALDUASOLO PLAZA, 8</li> </ul> <p><b>Otxandio</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• GAZTANETA HARATEGIA ARTEKALE, 25</li> </ul> | <p><b>Durango</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• GALLASTEGI HARATEGIA ANTISO ESTEGIZ KALEA, 1</li> </ul> <ul style="list-style-type: none"> <li>• IÑAKI HARATEGIA SASIKOA KALEA, 10</li> </ul> <ul style="list-style-type: none"> <li>• OKA HARATEGIA ANDRA MARI, 3</li> </ul> |
|--|--|

Baimenduak: Euskal Okela saltzeko Harategi Baimenduak

**Especializatuak:** Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak

Euskal Herrian ekoiztuak, ingurunea errespetatuz eta kontrol zorrotzak pasatuz, gozo-gozoak, eta kalitate handikoak. Honelakoak dira "Eusko Label" zigilua duten gure produktuak. Bilatu logotipoa eta desberdintasuna dastatu.



Orain, gainera, Kalitatezko Euskal produktuekin betetako saski bat irabaz dezakezu



**Goi-mailako elikagaiak**  
Alimentos de calidad superior

Kalitatezko euskal produktuekin betetako saski baten zozketan parte hartzeko "Eusko Label" zigilua duen produkturen baten etiketa zure datuekin eta telefonoarekin batera bidali hurrengo helbide honetara:

Erref.: "Eusko Label Saskia"  
Anboto Astekaria  
Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta

Hilera azken astelehenean saski bat zozketatuko dugu hurrengo produktuekin: kilo 1 Arabako Babarruna, pote 1 "Ibarreko Piparrak", pote 1 Esti, Idiazabal gazta, botella 1 "Bizkaiko Txakolina", botella 1 "Arabar Errioxaka Ardoa", botila 1 Arabar Errioxaka Olla Birjina, Txakolinazko bombol-kutxa 1 eta 30€ko txartel 1 Euskal Okelaz, Eusko Esne Bildotaz edo Euskal Baserriko Oñazkoaz trukabeko.

# "Italiako eta Estatu Batuetako Athleticen pinak dauzkat"

Athleticen 500 pin baino gehiagoko bilduma dauka Mikel Unamunoko lurretako Ibaiondo tabernan

**I**urretako Ibaiondo tabernan agerian da jabea Athletic zalea dena. Tabernako hormetan zuri-gorrien armarria, kamiseta eta koadro batzuk ikusi ahal izango dituzue. Koadroetan talde zuri-gorriaren pin mordoak dauzkate. Tabernaren eta bilduma horren jabea da Mikel Unamuno. Bere zaletasun horri buruz eta tabernako kontuez ibili gara beragaz berbetan.

**Zenbat denbora daramazu Ibaiondon beharrean?**  
Dagoeneko 21 urte daramatzat. Durangon egon nintzen arinago,

Paustan, urte bi, eta gero Iurretara etorri nintzen.

**Taberna eguneko ordu guztietan egoten da beteta. Zuretzako zein da ordurik gogokoena?**  
Goizetan giro polita egoten da. Asteazkenean, jende gehien orduan egoten da. Asteburuan ere giro polita egoten da, herriko jendea ibiltzen da bertan. Behar egiteko, beharbada, goizak dira onenak.

**Egunean zenbat kafe ateratzen dituzu?**  
Ene! Askok, asko. Egunean lau kilo kafe gastatzen dugu. Kafe bakoi-tzak 10-15 gramo izaten ditu, beraz, atera kontuak!

**Athleticeko pinen bilduma daukazu. Noiz hasi zinen pin horiek batzen?**

Orain dela 15 urte, gutxienez. Lagunek ekartzen dizkirate batzuk. Erosi ere egin ditut, eta kanpoko peñetatik hartutakoak ere badauzkat. Athleticek leku askotan dauzka peñak, eta Extremaduratik-eta ekarritako pinak dauzkat.

**Zenbat daukazu?**

Bostehunetik gora izango dira. Lehenago gehiago batzen nituen. Bilboko zazpi kaleetara-eta joaten nintzen erostera eta trukeak egitera, baina orain ez daukat horrenbeste denbora, eta gainera koadro denak beteta dauzkat. Bilduma itxita daukat.

**Athletic zalea zara duda barik. Momentu honetan zelan ikusten duzu taldea?**

Beno, ez dute askorik jokatzeko, baina nahiko emaitza onekin dabil Athletic. Tabernan giro ederra egoten da Athleticekin. Sevillagaz finala egon zenean, hemen pantaila handia jarri genuen kanpoan, eta topera egon ginen. Zaharrak, gazteak... denetik egon zen. Kale osoa beteta zegoen. Tragoa euro batera jarri genuen, eta ambientea egon zen. Ea laster berriro horrelako aukerarik daukagun.

**Orain dela denbora gutxitik, udaberrian eta udan terraza jartze-ko aukera izaten duzue Iurretan.**

Bai. Kalea orain dela gutxira arte txarto egon da, baina orain hobetu dute, eta herriko jendearentzat oso ondo dago. Herrian giroa sortzen da. Zapatuan eta domekan kalea kotxeentzat zarratuta egoten denez, oso ondo egoten da. Giro handia ez da egoten, herriko giroa da, azken finean. Baina herria egiteko oso ona.

**Tabernan krisia igarri duzue?**

Bai, zer edo zer igarri dugu. Gazte gutxiago ibiltzen da orain. Ez daukate horrenbeste diru, eta igartzeko da etxean geratzen direla. Asteburuetan eta gauetan jende gutxiago ibiltzen dela nabari da.


**Euretzako baten bat berezia ere izango da...**

Bai. Bi dauzkat nahiko bereziak. Bat Italiatik ekarritakoa eta beste Estatu Batuetan aurkitutakoa. Handik ekarri dizkidate.

**Mikel Unamuno**

Lemoarra da jaiotzez

Iurretako Ibaiondo tabernako tabernaria da



Endika Blanco  
Ikaslea

## Maitasuna vs Nahitasuna

Biharamun ikaragarriarekin marrantak joa, baina bertso egarri nintzen igande batean, Hitzetik Hartzera telebista saioan bertsolari lesakar bati entzundako nahitasunaz eta, ezagunagoa izanda ere, sarritan nekez eta beste askotan une desegokian darabilgun maitasunaz hausnartzea da ondorengo lerroon jomuga.

Izan dut urteotan lagun bat edo besterekin une gozoak igarotzeko aukera. Nik horrenbeste maite nituelaesan arren Loiolako erromeria ahaztezin hartako neskatxak bezala "ni zurekin jaijai" erantzun eta, iparra galduta, noraezean momentu latzak igarorazi dizkidaten pertsonak ere baditut gogoan. Baina denboraren poderioz, sentitu izan nuena zenbaitetan maitasuna ez zela konturatu naiz; itsuki buruturiko aitormenak, nahi edo desira soilek bultzatutakoak izan direlakoan nago. Aitzitik, honekin guztiarekin, ez dut inorekiko nahiz ezere-kiko maitasunik sentitzen ez dudarik esan nahi.

Maitasunagatik ez balitz, errepresioa ikaragarria dela jakinda, ez nintzateke gure herriaren askatasuna aldarrikatzera kalera irtengo. Maitasunagatik ez balitz, administrazio publiko, lantegi zein kalean gure hizkuntza erabiltzeko jartzen dizkiguten oztopoak argiak izanik, ez nuke gau eta egun euskaraz jarduteko ahaleginik egingo. Maitasunagatik ez balitz, ez nioke inoiz inori minik egingo.

Nahiz eta aspaldi honetan nahitasunaren biktima sentitu, noizbait ni neu ere borro izan naizelakoan nago. Hortaz, neronek behintzat, aurrerantzean, maite ditudan nahitasuna dela medio alde batera ez uztea espero dut.



MARTXOAREN 5ean  
10:00etatik 14:00etara  
16:30etik 20:00etara

MARTXOAREN 6an  
10:00etatik 14:00etara  
**elme**  
elorriko merkatarien elkarte

EUSKO JAURLARITZA  
INDUSTRIA, MERKATUAK  
ETA TURISMOA

GOBIERNO VASCO  
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
COMERCIO Y TURISMO

opariak osagarriak  
lentzeria  
zapata-denda  
altzariak  
**ELORRIKO AUKERA-AUKERAN**

etxeko osagarriak  
haur eta nagusien moda  
estetika  
ultramariñoak  
**KIROLDEGIKO FRONTOIAN**